#203
DOAN

2024 · 09 · 11
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

LARRIALDI ZERBITZUAK:
“Duela urte batzuk ezohiko egoera zena guztiz normala bihurtu da” 18-19 or.

ONINTZE ARANBURU:
“Ospe handiko ezkontza-soineko enpresa batean hasiko ditut praktikak” 20 or.

Festa zaparrada

UDAKO JAIAK ARGAZKITAN

Mediku zentroa RPS: 314/18

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK


3D ERRADIOGRAFIAK

Karmen kalea 13, behea, LAUDIO (Araba) · 946 72 31 00
www.yandioladental.com

AMURRIO 2-3
Amurrioko Udalak berriz uko egin dio Aiaraldearekin biltzeari
1.700 eragile, elkarte eta norbanakok eginiko eskaerari muzin egin dio Udalak

URDUÑA 4
Abian dago Bedarbide abeltzainen elkarteak sustatutako hiltegi berria
Hilabete honen bigarren hamabostaldian inauguratuko dute azpiegitura

LAUDIO 7
Itunpeko bi ikastetxera bidali dituzte Latiorron ikasi nahi zuten umeak
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hirugarren haur bat tokirik gabe utzi du

AIARALDEA 9
Ernaiko zazpi kide isundu dituzte “mozal legea” baliatuta
Hainbat ekimenetan parte hartzeagatik zigortu dituzte

KULTURA 23
Azaroaren 15ean helduko da zinemetara *Azken erromantikoak* filma
Aurretik, Zinemalditik igaroko da David Prez Sañudoren lana

KIROLA 28
Emakumezkoen Euskal Ligan egongo da Altzarrate taldea
“Ilusio eta lan handia” jartzeko prest daude taldekideak

Amurrioko Udalak berriz uko egin dio biltzeari

Milaka herritarren babesa jaso du Aiaraldea Komunikabideak. **Aiaraldea.eus**

Irailaren 21ean agortuko da 1.700 elkarte, eragile eta norbanakok Amurrioko Udalari jarritako epea Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza berrezarri eta euskararen biziberritzean "eragile aktibo" bilakatzeko. Uda osoa izan du tokiko erakundeak horretarako, baina bilera huts bat egiteari ere uko egin dio berriz ere.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Datorren irailaren 21era arte du epea Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza berrezarri eta euskararen biziberritzean "eragile aktibo" bilakatzeko. Hala eskatu zioten ekainaren 21ean 1.700 elkarte, eragile eta norbanakok, Amurrioko udaletxearen aurrean eginiko agerraldian. Ia uda osoa izan du Udalak jarrera aldatzeko, baina kontrakoa egin du: berriz uko egin dio komunikabidearekin biltzeari, berriki jakinarazi duenez.

Patri Pinedo eskubaloi jokalari ohiak eta Manolo Plazak (Amurrioko Olentzeroa) irakurri zuten ekaineko agerraldian euskarazko komunikabideen aldeko manifestua, eta hiru eskaera zehatz egin zizkioten Udalari. Lehena, "elkarlana estutzea" udalerriko zein eskualdeko euskalgintzaren eragileekin, tokiko erakundea "eragile aktibo" bilakatzeko "euskararen biziberritzearen prozesuan". Bigarrena, Udala Aiaraldea Komunikabidearekin biltzea, "bi entitateen arteko elkarlana berriz abiatu eta normalizatzeko". Eta hirugarrena, Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabideari azken hamabi urteetan eman dion dirulaguntza berrezartzea eta babes ekonomiko horren zenbatekoa eguneratzea, "eskualdeko gainontzeko udalek egiten duten ekarpenarekin parekatuz".

Pinedok eta Plazak azaldu zuten azken hamarkadetan "urrats esanguratsu ugari" egin direla euskararen biziberritze prozesuan, eta "berebizikoa" izan dela bide horretan aritu diren instituzio, eragile eta elkarte guztien ekarpena "hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko". Bide horretan, aldarrikatu zuten beharra dagoela "elkarlanerako espazioak" sortzeko, eta "geldirik" geratzearen arriskuaz ohartarazi zuten: "Euskararen kale erabilerak ez du gora egin eskualdean azken sei urteetan, eta beste hainbat esparrutan eginiko ikerketek ere kezkatzeko moduko datuak plazaratu dituzte. Euskara bidegurutze batean dago, eta bada unea bultzada berria emateko". Euren aburuz, bide horretan "funtsezko zeregina" betetzen dute Aiaraldea bezalako euskara hutsezko komunikabideek, eta horregatik da beharrezkoa instituzio publikoek "euren jarduna ekonomikoki eta sozialki babestea", "berebizikoa" delako hizkuntza biziberritzeko.

1.700 eragile, elkarte eta norbanakok sinatu zuten euskarazko komunikabideen aldeko manifestua, eta irailaren 21era arte eman zioten epea Udalari bere jarrera aldatzeko

Udalak uko egin dio biltzeari

Maiatzean jakinarazi zuen Aiaraldea Komunikabideak Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu ziola, aurretik inolako azalpen eta jakinarazpenik eman gabe. Berez, Udalak ez du oraindik dirulaguntzaren ezabatzea ofizialki jakinarazi ere egin. Udaberritik hona darama komunikabideak Udalarekin biltzeko saiakeran. Hainbat bilera eskaera egin ditu, bide ofizial zein ez-ofizialak baliatuta, baina Udalak kasu guztietan egin dio uko biltzeari.

Are gehiago, ekainaren 21eko agerraldi jendetsuaren ostean ere, Aiaraldea Komunikabidea hainbat bidetatik saiatu da Udalarekin hitz egiten. Horretan aritu da udan, baina ez du inolako erantzunik jaso irailaren hasierara arte; eta, oraingoan ere, ezezkoa izan da erantzuna. Udal

erreportajea

gobernutik Komunikabideari jakinarazi zaio bilera egin edo ez baloratu dutela, eta berriz ere uko egingo diotela aukera horri.

Hala ere, Udalak tartea du oraindik jarrera aldatzeko: hamar egun geratzen dira oraindik uda amaitzeko, eta Aiaraldea Komunikabidearen eskua luzatuta dago oraindik. Hala nabarmendu zuten Patri Pinedok eta Manolo Plazak ekaineko agerraldian: "Euskara egiazki biziberritzeko, Amurrioko Udalak elkarlana sustatu behar du gizarte zibilarekin; bertako elkarte eta entitateekin, eta eskutik helduta aurre egin behar diogu gure hizkuntzak bizirik jarraitzeko aurrean duen erronka erraldoiari. Garaiz eta prest gaude horretarako".

Udal gobernutik Komunikabideari jakinarazi zaio bilera egin edo ez baloratu dutela, eta berriz ere uko egingo diotela aukera horri, baina garaiz dago jarrera aldatzeko

Amurrioko ehunka elkarte eta norbanakok egin dute bat euskarazko komunikabideen aldeko manifestuarekin. **Aiaraldea.eus**

YOGA Kirtana
Ordutegia: asteazkenetan 19:30etik 21:00etara
Ikasi eta praktikan jarri bizitza gobernatzera lagunduko zaituen hiru erreminta hauek
ARNASKETA
Arnasketa gorputza eta adimena orekatzeko:
· Emozioak uztartzen ditu eta nerbio-sistema erregulatzen du.
· Barne boterea eta baretasuna ekartzen ditu.
· Odola eta energia oxigenatu eta arazten ditu.
MEDITAZIOA
· Burua behatzea, lasaitzea, osatzea eta araztea.
· Baretasuna, lasaitasuna, isiltasuna, bakea... eragiten ditu.
· Arreta Osoa barne poza, konexioa eta batasuna sortzeko.
ERLAXAZIOA
· Plano fisiko, energetiko, emozional, buruko, psikiko* eta espiritualean geratzen eta atseden hartzen ikastea.
· Zure oreka berreskuratu, berrorekatu eta berrezarri eta tentsio kontziente eta inkontzienteak ezabatu.
Maskuribai Z10, Amurrio · Info: 646 565 249 (Saisha, Mariaje Arbaiza Ulibarri) · @kirtanayogaamurrio

Ishtar English Academy
Matrikula-epea irekita
Adin eta maila guztiak
10 urtetik goragoko esperientzia
Ostegieta enparantza 5A, Laudio
946 548 760 · 654 163 406
@ishtarenglishacademy · wwww.ishtaracademy.com

herriz herri

Urduña

Hilabete honen bigarren hamabostaldian inauguratuko dute Bedarbide abeltzainen elkarteak sustatutako azpiegitura, baina lehenengo probekin hasi dira dagoeneko.

Hiltegia abian dago jadanik

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azpiegiturak martxan daude abuztutik. **Aiaraldea.eus**

Hamabi urteko ibilbidearen ostean, Urduñako hainbat abeltzainek lortu dute azkenean Belardi hiltegi eta eraldatze zentroa irekitzea. Ez dute irailaren 21era arte inauguratuko, baina lehen probak egin dituzte dagoeneko eta lehen sektorerako bitartekoa prest dago erabilerarako.

Une hauetan langile bakarra daukate, baina Mikel Kormenzana Bedarbide elkarteko presidenteak argitu du lan karga handitzen den neurrian kontratatuko dutela jende gehiago. Esaterako, irailean bertan laguntzailea izango du egungo beharginak, zeinak hiltzen, zatitzen eta enpaketatzen duen.

Berez, uztailaren erdian hasi ziren lehen sakrifizioekin eta bi hilabete hauek baliatuko dituzte denak ondo funtzionatu dezan. Abuztuan, adibidez, eguzki plakak jarriko dituzte teilatuan burujabetasun energetikoan sakontzeko eta kanpotik ere margotu nahi dute eraikina.

Horrez gain, garraiorako ibilgailuak desinfektatzeko tresneria instalatuko dute. "Zerbitzu hau garrantzitsua da eta erakundeek eskatzen digute, baina ez da erraza lortzea", argitu du Kormenzanak.

Azpiegitura eta zerbitzuak

Urduñako azpiegitura aitzindaria da Espainiako Estatuan eta ezaugarri malguetako lehen hiltegia da. 2020ko amaieran hiltegi txikien baldintzak malgutu zituen Espainiako Gobernuak eta zirrikitu hori aprobetxatu dute Belardin. "Hemen animaliek ez dute gaua edo denbora igarotzen, zuzenean ekartzen dira hiltzeko, ez dago kortarik", nabarmendu du Kormenzanak.

Tamaina ezberdineko animaliak (behiak, zaldiak, txerriak, ardiak, arkumeak...) hiltzeko tresnak ez ezik, haragia zatitzeko, paketatzeko, prestatzeko, eraldatzeko (kroketak, saltxitxak, odolosteak edota lukainkak egiteko) eta izozteko azpiegiturak ere badaude, abeltzainentzat. Halaber, salmenta puntua prest dute, berehala irekitzea aurreikusi ez duten arren. "Produktuak eta bezeroak daudenean irekiko dugu", aurreratu du abeltzainen elkarteko kideak.

Edonola ere, ezin da ahaztu Belardik baduela eraldaketa soziala bultzatzeko asmoa. Horregatik, hain zuzen, trebakuntza gela bat daukate mikrofono eta pantailekin, lehen sektoreko eragileei formazioa eskaintzeko, eta ez hori bakarrik. Tokia irekita egongo da eskatzen duten elkarteentzat.

Gainera, Urduñako adingabeen zentroko gazteek bertan ikasteko programa jarriko dute martxan.

1.500.000 euroko inbertsioa

Laudioko hiltegia itxi zutenetik, agerian geratu da Aiaraldean premiazkoa zela lehen sektorearen beharra hiltegia izateko. Belardiko kideak lanean ari ziren aspaldi. Inbertsioaren % 40 erakunde publikoek hartu dute euren gain, eskualdea sozioekonomikoki suspertzeko larrialdiko planaren bitartez, baina diruaren gehiengoa abeltzainek eurek metatu dute. Zehazki, gastu osoaren % 30 fundazioen finantzazioa bilatuta lortu dute eta beste % 30 abeltzainek eurek aurreratuta (% 10 krediduen bitartez eskuratu dute).

Egun 35 bazkide dira Belardin eta dozena erdi eskaera gehiago heldu zaizkie. Horrez gain, Laudioko Udalak hitzarmena sinatuko du elkartearekin, abeltzain laudioarrek bazkide tratua lortzeko. Hau da, lehentasuna eta zerbitzu merkeagoak izango dituzte. Tokiko erakundeak berak azaldu duenez, 100.000 euro ordainduko dituzte lau urtetan, eta horren truke Laudioko abeltzainek hurrengo hamabost urtetan zehar erabili ahalko dute azpiegitura.

Laudioko Udalak hitzarmena sinatuko du elkartearekin, abeltzain laudioarrek bazkide tratua izateko

Mikel Kormenzanak azpimarratu du irabazi asmorik gabeko elkartea osatzea izan dela hautua, sortzen den diru guztia lehen sektorean eta azpiegituretan inbertitzeko eta jende gehiagok proiektu berriak abiatu ditzan.

Urduña

Ramon Torres Donosoren gorpuzkiak identifikatu dituzte espetxe frankistan hildakoen artean

71 gorpuzki topatu dituzte momentuz Urduñako hilerrian. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Ramon Torres Donoso 1941ko martxoaren 15ean hil zen Urduñako espetxe frankistan, erregimenak han sortutako bizi baldintza latzen ondorioz, hain zuzen. Berriki, Gogora Institutuak identifikatu ditu bere gorpuzkiak eta hala jakinarazi dio familiari.

Torres Donoso Badajozeko Castuera kontzentrazio-esparrutik ekarri zuten eskualdera. Nekazaria zen, UGT sindikatuko afiliatua, ezkonduta zegoen, eta bost seme-alaba izan zituen. Gerra Kontseiluak epaitua, hamasei urteko espetxe-zigorra ezarri zioten matxinada delitua egotzita.

1939ko urrian Castueran zegoen preso eta, hilabete geroago, Urduñako Espetxe Zentralera eraman zuten. 1941eko martxoaren 15ean hil zen, 38 urte zituela, espetxe-sistema frankistaren biktima bilakatuta.

Dokumentazioaren arabera, kontzentrazio-esparruan eta Urduñako espetxean hildako 225 lagunetatik 102 Castuerako esparrutik eraman zituzten bertara.

Urduñan geratuko dira

Datozen asteetan emango dizkiete gorpuzkiak senideei eta hauek Urduñako Kolunbarioan ehortziko dituzte, izaera pribatuko ekitaldi baten ondoren.

Ramon Torres Donoso da Urduñako hilerrian 2014an eta 2022an egindako indusketetan berreskuratutako 71 biktimetatik identifikatutako hamaikagarrena.

Amurrio

Udalak indarkeria matxistaren aurkako jarduera-protokolo berria sinatu du

Testua **Oihane Ozaeta Fernandez**

Amurrioko Udalak Arabako Foru Aldundiarekin, Osakidetzarekin eta Ertzaintzarekin elkarlanean bultzatutako indarkeria matxistaren aurkako jarduera-protokolo berria sortu du.

Dokumentu berriaren xehetasun guztiak eman dituzte, eta protokoloa bera sinatu dute Gorka Urtaranek, Gizarte Politiken saileko foru diputatuak; Txerra Molinuevok, Amurrioko Udaleko alkateak; Jon Guajardok, Galdakaoko ESIko zuzendari-gerenteak; eta Alfonso Martinez Sainzek, Ertzaintzaren Laudioko komisarioak.

Araban lau administrazio-erakunde hauek sinatzen duten lehen protokoloa da. Amurrioko Udaleko Berdintasun zinegotzi Ixone Saratxagak, bere aldetik, "prozesu luzea" izan dela azpimarratu du: "Lehenik, aurretik zegoen dokumentazioa berrikusi dugu, eguneratzeko, eta, ondoren, hausnarketarako guneak sortu ditugu dokumentua egiteko (teknikariek eta politikariek, gizarte-agenteek, Ertzaintzak... parte hartu dute)". "Lankidetza horrek bermatzen du dokumentu hau tresna gisa erabiltzea", gehitu du Berdintasun zinegotziak.

Gorka Urtaran diputatuak, berriz, helburua "indarkeria matxistarik gabeko udalerria sortzea" dela nabarmendu du, eta "hori Arabara zabaltzen badugu, gizarte hobe bat lortuko dugula" ziurtatu du.

Amurrioko Udalaren arabera, orain arte, indarkeria matxistari aurre egiten dioten LGTBIQA+ kolektiboko pertsonak "ez dira behar bezala aztertu".

Beraz, "protokoloak ez-egite hori zuzentzea du helburu, indarkeria matxistaren eraginpean dauden guztiek beharrezko babesa jasoko dutela ziurtatuz".

Protokolo berriak Tximeleta Zentroa ere barne hartzen du, Araba osoko emakumeei zerbitzua ematen dien foru baliabide berria, eta lurraldean sexu-indarkeriaren biktimei arreta emateko dagoen lehen zentroa.

Urtaranek zentro hori nabarmendu nahi izan du: "Apirilean ireki genuen Gasteizen, baina Araba osorako da. Laguntza sozialaz eta psikologikoa eskaintzen du, eta zabaldu zenetik 90 emakume artatu dituzte".

Zentro horrekin batera, Hegoak zerbitzua ere goraipatu du Urtaranek. Amurrioko zerbitzua da, eta Udalak utzitako lokalean arreta psikosozialeko programa eta laguntza juridikoko programa daude eskuragarri. "Horrelako baliabideak behar-beharrezkoak dira. Lanean jarraituko dugu Araba osoan indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko", adierazi du Urtaranek.

Bost kasu gehiago 2023an

Jon Guajardo, Galdakaoko ESIko zuzendari-gerenteak egungo egoera azaldu du. Bere hitzetan, azken lau urteetan gora egin du kasuen kopuruak: "2023an 252 kasu atzeman ziren Galdakaon, eta 2022an, berriz, 87. Amurriori dagokionez, 5 kasu berri erregistratu dira urtea hasi denetik".

Modu koordinatuan lan egitea "funtsezkoa" dela azpimarratu du Guajardok, "guztion gaia" delako. Era berean, Amurrioko Udala zoriondu nahi izan du, "Arabako lehena" delako.

Bukatzeko, Alfonso Martinez Sainzek, Ertzaintzaren Laudioko komisarioak, Ertzain Etxean 24 orduz egiten duten lana dela azaldu du, eta kasu horiek artatzen dituzten pertsona espezializatuak daudela. "Protokolo hau sinatuta, Ertzaintzak indarkeria matxistaren aurkako borrokan duen konpromisoa islatzen dugu", gehitu du.

Amurrioko Udalaren arabera, protokolo honen helburu nagusien artean "biktimei laguntzen zuzenean inplikatuta dauden erakundeen arteko jarduera eta koordinazioa hobetzea" dago.

Gainera, "ahalegin horretan beste erakunde publiko batzuk eta gizarte zibileko elkarteak integratzearen garrantzia" nabarmentzen da, "indarkeria matxistaren eragina bizi duten emakumeei, adingabeei eta LGTBIQA+ kolektiboko pertsonei laguntzeko sarea zabaltzeko helburuarekin".

herriz herri

Amurrio

Irailean itzuliko da Amurrioko adinekoen jantoki soziala

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Irailean itzuliko da Amurrioko Nagusien Kontseiluaren adinekoen jantoki sozialaren egitasmoa, bizilagun nagusi askoren bakardadea arintzeko helburuarekin.

Jantokia astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, Jubilatuen Klubeko jaiegunetan izan ezik. 2023ko azaroan inauguratu zenetik aurtengo uztailera arte hogei pertsona baino gehiagok erabili dute, eta 1.760 otordu eman dituzte orotara.

Urtebeteko ibilbidea

2023ko udaberrian abiatu zuen Amurrioko Nagusien Kontseiluak nagusientzako jantoki sozialaren proba pilotua. Duela bost urte, kontseilu moduan lan egiten hasi zirenean, Udalak eginiko inkesta batzuk ikusi zituzten, 65 urtetik gorako herritarrei eginikoak.

Galdetegi horien emaitzek "harridura" sortu zuten kontseiluko kideen artean, ikusi zutelako uste zutena baino jende edadetu gehiago bizi dela bakardade egoeran eta elikadura maila desegokiekin.

Orduan bururatu zitzaien jantoki sozialaren ideia, bi helburu asetzeko: "Isolamendu egoeran dauden nagusiek harreman sozial politez eta otordu osasuntsu batez gozatu ahal izatea".

Proba pilotua eta gero, iazko azaroan inauguratu zuten jantokia. Zerbitzuaren balorazioa oso ona denez, eta erabiltzaileen % 100ek jarraitzeko interesa agertu dutenez, irailean abiatuko da berriro egitasmoa. Erabiltzaileen % 65a dira emakumezkoak eta % 35 gizonezkoak.

Aiara

Joseba Terrerosek Arabako Kontzejuen lehendakaritza utziko du, Eusko Jaurlaritzara joateko

Joseba Terreros, artxiboko irudi batean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Joseba Terrerosek Arabako Kontzejuen Elkarteko (AKE) presidente kargua utziko duela iragarri du elkarteko kideei zuzendutako gutun baten bidez. Bere mezuan, Terrerosek jakinarazi du hemendik aurrera Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendari izango dela Eusko Jaurlaritzan. Eskaintza hori Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren eskutik jaso du.

Agur-gutunean, Terrerosek bere esker ona adierazi du sei urteetan jasotako babesagatik: "2018tik, elkarte honetako lehendakari izateko ohorea izan dut, eta Arabako kontzeju guztien aldetik aparteko tratua jaso dut. Sei urteko elkarlana eta era guztietako esperientziak izan dira. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet zuetako bakoitzari, denbora honetan guztian zuen laguntza eta lankidetzagatik".

Alde egin arren, Terrerosek ziurtatu du landa-ingurunearekin duen konpromisoak "sendoa" izaten jarraitzen duela: "Hemendik, sinesten dudanaren alde, gure landa-ingurunearen alde eta gure kontzejuen alde lan egiten jarraituko dut, nahiz eta orain arte ez bezala izan. Horrek ere ez du eraginik izango landa-ingurunearekiko dudan dedikazioan eta konpromisoan, ez eta gure lurraldean bakarra den eredu bateko kide izatearen harrotasunean eta sentimenduan ere".

Laudio

Laudioko suhiltzaileen parkeko hondarrak baino ez dira geratzen dagoeneko

Ia amaituta daude eraisketa lanak. **Naia Vallejo Torres**

Testua
Maider Ramirez Martin

Aurrera doaz Laudioko suhitzaileen parkea guztiz eraberritzeko obrak. Iragan asteburuan eraitsi zuten maniobra-dorrea, hori baitzen zutik geratzen zen egitura bakarra. Obrak azaroan abiatu zituzten eta, aurreikuspenen arabera, bi urte iraungo dute. Bitartean, Arza poligonoan kokatuta dago foru suhiltzaileen Laudioko egoitza. Barrakoi batzuk instalatu zituzten eta ibilgailuak gordetzeko karpa bat ere bai. Ertzaintza, aldiz, suhiltzaile parke ohiaren aldameneko parkean ditu behin-behinean lan jardunari eutsi ahal izateko barrakoiak.

Euskara-bekak jaso dituzten pertsonen kopurua % 42 hazi da

Testua
Maider Ramirez Martin

Laudioko Udalak ohar bidez zabaldu duenez, urtez urte, ahalegina egiten du baliabide ekonomikoen falta euskara ikasteko oztopo izan ez dadin. Ildo horretan, 2023-2024 ikasturtean parte hartu duten pertsonei euskara-bekak ordaindu zaizkie. Guztira, 139 eskabide aurkeztu dira laguntza-deialdira, eta iaz 103 aurkeztu ziren. Horietatik 136 ordaindu dira, aurreko ikasturteko 96 eskabideen aldean.

"Datu positiboa da" Udalaren iritziz, laguntza hori jaso duten ikasleen kopurua % 42 hazi baita. Bestalde, eskatzaileen % 67 emakumeak direla nabarmendu du Udalak.

Ildo horretan, aurtengo euskara beken deialdian sartutako ildo politikoa lantzen jarraituko du Udalak: eskaera guztiei matrikularen % 50 bermatzea eta langabezian daudenei 100 itzultzea. Irizpide berri horrek Udalak eskatzaile bakoitzari ordaindutako zenbatekoa handitzea ekarri du, eta hori guztizko inbertsioan islatu da, % 84 hazi baita, 2023an 16.061 euro izatetik 2024an 29.561 euro izatera igarota.

Aurten, berrikuntza gisa, 2007an edo ondorengo urteetan jaiotako pertsonek zuzenean jasoko dute diruz lagundu daitekeen gastuaren % 100, beren lan-egoera kontuan hartu gabe, eta matrikulatu daitezkeen adingabeek euskara ikastea doakoa izango dela bermatuta. Udalak gogorarazten du udako euskara ikastaroetarako ere bekak emango direla eta eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 15a izango dela.

Laudio

Hezkuntza Sailak itunpeko bi ikastetxera bidali ditu Latiorron ikasi nahi zuten umeak eta hirugarren bat plaza gabe utzi du

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Latiorro Eskolan ikasi nahi zuten hiru familiek salatu dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren erabakia, guztiei ezezko borobila eman baitie.

Hain zuzen, hirurek bi urteko adingabeak dituzte eta ikastetxe publikoan matrikulatu nahi zituzten euren seme-alabak, baina administrazioak aukera hori ukatu die.

Familia bakoitza egoera ezberdinean dago. Batek ez zuen hautatu ikastetxe hori aurrematrikula egitean, baina bere egoeran izandako aldaketen ondorioz —herrigunetik Gardeara joan dira bizitzen eta garraio publikoa behar dute bi kilometroko tarte hori egiteko—, Latiorrora jo zuten.

Beste familia baten kasuan, aurrematrikulan beste ikastetxe bat adierazi zuten, baina hori ezzitzaienez esleitu, Latiorroren alde egin zuten.

Bi kasu horietan itunpeko hezkuntza zentroan sartuko dira umeak. Azkena, ordea, egoera okerrenean geratu da, plaza gabe geratu baita, sare publikoan zein pribatuan. Kasu horretan, gurasoek epez kanpo bete zuten matrikula, eta Latiorron sartu nahi zuten haurra, bere anaia nagusia han dagoelako jadanik.

Gurasoek salatu duten beste puntu bat izan da eurei zuzenean ez zaiela erantzunik heldu, eta zeharka jaso dutela Latiorro eskolako zuzendaritzaren bitartez. Bi familien kasuan arrazoia izan da jadanik beste bi ikastetxe esleitu zizkietela.

Aldiz, plaza barik geratu denarentzat, Hezkuntza Sailak argudiatu du bi urteko gelako ikasturtea ez dela derrigorrezkoa eta, Latiorroko gela hori beteta dagoenez, ez dutela onartuko beste ume bat, ez baita nahikoa tutore gehigarria jartzeko.

Gogoratu beharra dago ikastetxe publiko horren Lehen Hezkuntzako seigarren ikasturtean egoera hori ematen dela gela guztietan. Hau da, ezarritako ume kopurua gainditzen dutela, baina tutore batekin indartzen dute ikasturte hori. Horrez gain, aipatu beharra dago ikasturtea bitarteko gutxiagorekin abiatu dutela eskualdeko hiru ikastetxek, zuzendaritza lanaldiak murriztu baititu Hezkuntza Sailak Artziniegako Arteko Gure Aman, Latiorro Eskolan eta Aretako Herri Eskolan.

Zuzendaritzaren bitartekaritza

Latiorro Eskolako zuzendaritza taldeak argitu dio Aiaraldea Hedabideari eurak jarri zirela harremanetan Hezkuntza Sailarekin, ikusita familiek esaten zietela ez zekitela zer gertatuko zen hastear zegoen ikasturtean.

Horri esker jakin izan zuten Sailak jadanik bidali dituela erantzunak eskutitz bidez eta oraindik ez direla heldu etxeetara. Halaber, ezezkoen arrazoiak jaso zituen zuzendaritzak.

Latiorro Eskola, pandemia garaiko artxibo irudi batean. **Aiaraldea.eus**

Plataformaren iritzia

Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik! plataformak iritzi oso kritikoa zabaldu du gertatutakoaren inguruan. Izan ere, bere ustez, "Eusko Jaurlaritzak eskualdeko hiru familia sare publikotik kanpo utzi ditu, hainbat eskoletako zuzendaritza-orduak murriztu ditu, eskola publiko batzuen ratioa ere murriztu du jaioetako kopurua aintzat hartuta eta milioika euro gehitu dizkio itunpeko sareari, eta hori guztia Hezkuntza Lege berriak babestuta".

Umeetako bat plazarik gabe geratu da, sare publikoan zein pribatuan

Plataformaren aburuz, "itunpeko eskola indartu baino ez du egiten, publikoak gero eta murrizketa gehiago pairatzen dituen bitartean".

herriz herri

Artziniega

Hiru plaza gehiago izango ditu Adinekoentzako Eguneko Zentro berriak, hamar guztira

Testua
Maider Ramirez Martin

2026an helduko da Artziniegara Adinekoentzako Eguneko Zentro berria, aurreikuspenen arabera. Eraikin berria Geltoki plazan egongo da eta 197 metro karratu hartuko ditu, ia 4.000 metro karratuko eremu batean. Gaur egun, zonalde horretan lorategi-gune bat dago, aparkalekuz inguratua.

Orain, alde zaharreko goiko aldean dago Eguneko Zentroa eta, Artziniegako Udalaren arabera, ez da kokalekurik egokiena irisgarritasunari, argitasunari eta kanpoko espazioari dagokionez.

Egungo zentroak zazpi erabiltzaileentzako plazak ditu, eta berria, aldiz, hamar pertsonek erabili ahal izango dute. Gainera, mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroek betetzen dituzten ezaugarriak izango ditu, nahiz eta mendekotasunik ez duten edo mendekotasun txikia duten adinekoentzat izan.

Gauzak horrela, beste hainbat baldintzen artean, gurpildun aulkian dauden erabiltzaileentzat irisgarria izango da, eta honela egongo da banatuta: harrera eta jantziak gordetzeko eremua, ariketak egiteko, atsedenerako eta bazkaltzeko lekua, geriatria-komuna, erabilera anitzeko bulegoa, sukaldea eta biltegia izango ditu. Kanpoaldean, terraza txikia ere izango du. Gainera, panel fotovoltaikoak ere jarriko dituzte.

Proiektuaren ardura Jon Unai Urruticoechea Gutierrez artitektuari esleitu dio Udalak, eta irailerako prest egongo da eraikitze-txostena. Proiekturako aurrekontu orokorra 469.608,67 eurokoa da.

Geltoki plazan erakiko dute zentro berria. **Artziniegako Udala**

Udalak 3.000 euro bideratu ditu Palestinari laguntzeko

Testua
Maider Ramirez Martin

Artziniegako Udalak 3.000 euroko diru partida bideratu zion uztailean UNRWA erakundeari, Palestinarekin elkartasunean. Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslariei Laguntzeko Nazio Batuen Agentzia da UNRWA eta ia zazpi hamarkada daramatza palestinar errefuxiatuei hezkuntza, osasuna, laguntza humanitarioa eta gizarte-zerbitzuak bermatzen. Joseba Vivanco Artziniegako alkateak Aiaraldea Komunikabideari jakinarazi dionez, tokiko erakundeak urtero bideratzen du diru partida bat nazioarteko kooperaziora. Aurten, UNRWAri ematea erabaki zuen Udalak. Izan ere, agentziaren finantzaketa NBEko estatu kideen borondatezko ekarpenek osatzen dute ia osorik, eta iaztik hainbat herrialdek laguntza horiek emateari utzi diote.

Aiaraldea

Abu Dhabiko fabrikak Aiaraldean lan gehiago sortuko duela uste dute Tubacexeko zuzendariek

Testua
Aitor Aspuru Saez

Tubacexeko arduradunek streaming bidez egin zuten uztailean 2024ko lehen sei hilabetei buruzko balorazioa. Enpresarien hitzartzearen zati handi bat Abu Dhabiko proiektuari buruzkoa izan zen, non 1.000 milioi euroko eskariak izango dituzten (berez, horri begira ekoizten hasi dira jadanik) eta urte amaierarako espero dute lantegi berria irekitzea.

Gauzak horrela, Aiaraldea Komunikabideak galdetu zien multinazionaleko ordezkariei ea espero duten eskualdeko lantegien jarduera murriztea azpiegitura berriaren ondorioz, eta guztiz kontrakoa aurreikusi dutela azaldu zuten: "Altzairua Euskal Herriko lantegietan ekoiztuko da eta Abu Dhabin amaituko dira hodiak. Hortaz, espero dugu emaitza positiboa izatea eta lan gehiago izatea".

Aurtengo salmentak, momentuz, 380 milioi eurokoak dira, iaz baino gutxiago. Dena den, 50,1 milioi eurokoak dira etekinak, zergak ordaindu gabe; eta Tubacexeko agintariak ez daude kezkatuta, 1.600 milioi euroko eskariak metatu baitituzte. Horrez gain, industria berrietara zabaltzen ari dira: armagintza, azpiegitura nuklear txikiak, hidrogenoa...

Aiaraldea

Eskualdeko Ernaiko zazpi kide isundu dituzte “mozal legea” baliatuta

Tubacexen eginiko piketeagatik isundu dute kideetako bat. **Aiaraldea.eus**

Testua
Maider Ramirez Martin

Ernai gazte antolakundeko 133 militante isundu ditu Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak 290.500 eurorekin. Eskualdeko bi kide daude horien artean, baina beste bost aiaraldear ere zigortu dituzte beste gertakari batzuei lotuta.

Berez, 2023ko irailaren 22an Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarren kartzelaratzeak salatzeko egindako ekimenetan identifikatu zituzten lehen bi gazteak, eta Mozal Legea ezarrita jarri dizkiete isunak. Bakoitzak 1.400 euroko zigor ekonomikoari egin behar dio aurre.

Horrez gain, Ernaiko beste lau kide identifikatu eta isundu ditu Aiaraldean Segurtasun Sailak pankarta bat jartzeagatik. "Polizia gorroto dugu" lema zuen afixak. Momentuz, ez dakite zehazki zenbatekoa izango den zigorra.

Azkenik, eta Ernaiko militantzia espezifikoagatik ez bada ere, gazte antolakundeko beste kide batek ere jaso du isuna, Greba Feministaren testuinguruan iazko azaroaren 30ean Laudioko Tubacex enpresaren sarreran egindako piketeagatik. Azaldu dutenez, Greba Batzordeko beste zenbait kidek ere jaso dute zigor ekonomikoa arrazoi beragatik.

Aitor eta Galderren alde

2023ko irailaren 30ean atxilotu eta espetxeratu zituzten Aitor Zelaia eta Galder Barbado, Gasteizko gobernu militarrean, haien aldeko manifestazio nazionala abiatu baino une batzuk lehenago. Lau urteko espetxe zigorra ezarri zien Auzitegi Nazionalak biei, "materiallehergarriak helburu terroristekin gordetzea" egotzita.

Hainbat elkartasun ekimen egin zituzten atxiloketaren aurreko asteetan, eta irailaren 22an Bilbon eta Gasteizen egindako protestetan 133 gazte identifikatu zituzten orotara. Bi Aiaraldekoak ziren. Gerora, Mozal Legea aplikatu eta identifikatutako kide guztiei 1.400 eta 2.500 euroko isunak ezarri dizkiete; osotara, 290.500 euroko zigorra.

QUICK PC REPAIR
Informatika argi eta erraz
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA gainkosturik gabe
· Salmenta · Konponketak
· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako
· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua
Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien RENOVE PLANAri buruz
Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

Okondoko San Prudentzio baseliza eta Laudioko Etxebarri baserria zaharberritzeko dirulaguntzak emango ditu Aldundiak

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko baselizak eta Trebiñuko enklabea kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeak garatzeko dirulaguntza ebatzi du 2024ko ekitaldirako, eta 70.000 euro emango ditu guztira hainbat eraikin konpontzeko. Horien artean daude Okondoko San Prudentzio ermita eta Laudioko Etxebarri baserria.

Zehazki, Okondoko San Prudentzio ermitako fatxada nagusia eta albokoa zaharberritzeko aurrekontua 15.383,94 eurokoa da. Eta Arabako Foru Aldundiak 9.845,72 euroko dirulaguntza emango du.

Laudioko Etxebarri baserriko fatxada nagusia finkatzeko proiektuaren aurrekontua, berriz, 14.822,50 eurokoa da. Eta AFAk 10.672,20 euroko dirulaguntza emango du.

Gogoratu behar da uztailean Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuko espezialistek margoak babesteko lanak egin zituztela Etxebarri baserriko fatxada nagusian.

HOTEL ORDUÑA PLAZA
**** Balneario

Areto desberdinak ekitaldi berezientzako (ezkontzak, bilerak, jaunartzeak...)

Erlaxatu etxetik gertu
Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38 · info@hotelordunaplaza.com
DOAKO APARKALEKUA
@hotelordunaplaza

argazki erreportajea

Udako sasoiarekin batera, auzoz auzo eta herriz herri igaro da festa giroa. Aiaraldeko kaleek eta plazek gainezka egin dute berriro ere. Aiaraldea Komunikabideko kideak festarik festa aritu dira argazki kamerarekin une guzti horiek biltzeko asmoz.

Festa zaparradak algara uholdea ekarri du

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Sargoria, euriteak, udako ekaitz bortitzak... ez dira gai izan aiaraldearren festa gogoa epeltzeko. Uda sasoiarekin batera egin dute eztanda eskualdeko hamaika herri eta auzoetako jaiek.

Herrixka txikienetik hasi eta udalerri nagusietako festetaraino osagai berdinekin prestatu dituzte egun eta gau luzeetako egitarauak: antolakuntza eta parte-hartzea. Aiaraldeko milaka bizilagunek euren alea jarri dute, beste behin ere, herritar guztientzako tokia eskaini duten jaiak kozinatzeko, eta emaitza agerikoa izan da.

Argazki guztiak klik bakarrean

Aiaraldea Komunikabideko kazetariak eta kolaboratzaileak festarik festa aritu dira, kaleetako giroa hori argazki kamerekin arrantzatzeko asmoz. Aiaraldea.eus atarian daude guztiak ikusgai.

Argazkiak: Txabi Alvarado, Naia Vallejo, Maider Ramirez, Asier Mardones, Oihane Ozaeta.

argazki erreportajea

argazki erreportajea

argazki erreportajea

argazki erreportajea

argazki erreportajea

AIA RAL DEA - FAK TO-RIA
KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

agenda

2024/09/11
2024/09/25

Oraindik ez da uda amaitu, *Latiorroko jaiak falta dira*

Uda ez da amaitu oraindik. Latiorroko jaiak ospatuko dira irailaren 13tik 15era bitartean, eta ekintzaz betetako hiru eguneko egitaraua prestatu du jai batzordeak. Ohiko eskema mantendu dute, baina zenbait berrikuntzarekin.

Bi nobedade nagusi nabarmendu dituzte antolatzaileek. "Latiorro eskolaren eta Jesuri Guraso elkartearen inplikazioa gora doa: ardo dastatzea antolatuko dute lehenengo aldiz ostiralean", azaldu dute. Horrez gain, "larunbateko herri bazkariaren osteko orduak indartu" egingo dituzte baita ere, batukada eta txapel jaurtiketa antolatuta.

Musika eskaintzari dagokionez, ohiko eskema mantenduko dute, tokiko sortzaileei lekua eginez. Ostiralean Zinkha talde aiaraldearra izango da oholtzara igotzen lehena, Kaos Etilikoren txanda izango da gero, eta DJ Teso laudioarra arduratuko da gaua ixteaz.

Larunbatean, aldiz, Walter Ego talde laudioarrak joko du lehenbizi, eta ondoren arituko da Periferia boskotekataluniarra. Jarraian, Gautaegun erromeria eta DJ Masa egongo dira, goizeko ordu txikiak arte. Gauargi erromeria, aldiz, igandea girotzeaz arduratuko da.

Egungo jai batzordeak 10 urte bete ditu festen antolakuntzan murgilduta. Kide berri ugari batu dira bidean, baina nabarmendu dute ongi etorria izango dela "belaunaldi berrien, ostalarien eta auzoko talde guztien parte hartzea". Bi modu daude batzordera batzeko: mezua elektronikoa bidaltzea lateorroko.jaiak@gmail.com helbidera, "edo irailean auzora hurbiltzea".

Atxetako jaiak

Latiorroko jaiez gain, Atxetako jaiak ospatuko dira datorren asteburuan. Arrankudiaga-Zolloko auzo horretan antzeko eskema baliatzen dute urtero egitaraua osatzerako orduan. Larunbatean haurrentzako puzgarri eta jolasak egongo dira egun osoan zehar, eta helduek, bien bitartean, marmitako eta tortilla txapelketan parte hartzeko aukera izango dute. Arratsaldean, aldiz, Bi Hotsak abesbatza bertaratuko da auzoa kantuz girotzera, eta FestaSound DJarekin luzatuko dute gaua gero.

Igandean bazkari herrikoian bilduko dira bizilagunak berriz, eta arratsaldean agurtuko dituzte jaiak, Elvi bentrilokuoaren ikuskizunarekin eta igel txapelketarekin.

KONTZERTUAK

09.14 Larunbata
19:30 LAUDIO
LAUDIO MINBIZIAREN KONTRA JAIALDIA
Doble Fuerza, Grippers, Penadas por la Ley, ShÖck, Mal Asunto, Tropical Hardcore eta Lur taldeen kontzertuak
Sarrerak: 15 euro
Sorgin tabernan

09.14 Larunbata
20:00 AMURRIO
LUIS VILEN 20. URTEURRENEKO BIRA
Sarrerak: 6 euro
Amurrio Antzokian

09.21 Larunbata
19:30 ARTZINIEGA
PATRICIA SESAR
Artziniega Museoan

IKUSKIZUNAK

09.13 Ostirala
OKONDO
MAGIALDIARABA
18:00 // Magia tailerrak Kultur etxean, 7-12 urte bitarteko haurrentzat
18:30 // Magia gertutik, tabernetan
19:30 // Magia ikuskizuna frontoian

09.14 Larunbata
20:45 AMURRIO
KORTERRAZA FILM LABURREN JAIALDIA
Udako udal igerilekuetan

09.15 Igandea
18:00 ARTZINIEGA
GOROLDIORIK EZ
Landa eremutik ibilbide kulturala Piszifaktoria Ideien Laborategiaren eskutik. Sarrerak Faktoria.eus atarian eskuratu daitezke
Arteko landan

KIROLA

09.22 Igandea
08:00 ARRANKUDIAGA
ARRANKUDIAGAKO XXI. MENDI MARTXA
Herriko plazatik

FAMILIA EKINTZAK

09.22 Igandea
AIARA
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
17:00 // *Kiribiilen ipuinak*
Skaywalker umeentzako festa
18:30 // Txokolatada
19:00 // Dantza emanaldia eta dantza plaza Urduñako Erauntsi taldearekin
20:30 // Bi Hotsak abesbatzaren emanaldia
21:00 // Odoloste jana
22:00 // FestaSound DJ
Atxeta auzoan

09.15 Igandea
LAUDIO
LATIORROKO JAIAK
08:00 // Latiorroko XXXIII. marmitako txapelketa
13:00 // Kazolak epaimahaiaren aurrean aurkeztea
13:00 // Itxarkundia dantza taldearen emanaldia
14:00 // Zozketa eta sari banaketa
15:00 // Marmitako bazkaria
16:30 // Bingoa
18:00 // Gauargi erromeriaren kontzertua
19:00 // Txokolate jana
20:00 // Jai amaiera
Latiorro auzoan

09.15 Igandea
ARRANKUDIAGA-ZOLLO
ATXETAKO JAIAK
12:30 // Meza
13:00 // J.M Akustik
14:30 // Bazkari herrikoia eta bingoa
18:00 // Elvi bentrilokuoa
19:15 // XXXIII. Igel Txapelketa
20:00 // Igelaren sari banaketa
Atxeta auzoan

09.22 Igandea
10:30 OROZKO
GOIKIRIKO KOFRADI EGUNA
Euskal dantzak, patata tortilla eta paella leihaketak, irrintzi txapelketa eta mariatxiak
Goikiri auzoa

BESTELAKOAK

09.14 Larunbata
10:00-20:00 URDUÑA
ANTIGOALEKO ETA BILDUMAZALETASUNEN XI. AZOKA
Foru plazan

09.14 Larunbata
ARTZINIEGA
XXV. ANTZINAKO AZOKA
Egun osoko egitaraua egongo da
Alde zaharrean

09.18 Asteazkena
18:00 AMURRIO
GUZURTEGI JATETXEAREN AURKEZPENA
Errezeta bat prestatuko da, dastatu ahal izateko

Juan Carlos Navarrori *omenaldia*



Cosecha del 48 elkartearen aitortza jasoko du Juan Carlos Navarro Ullesek irailaren 26an. 12:30ean izango da omenaldia, Laudioko Kultur Etxeko Arraño aretoan. Bertan, ikerlari laudioarrak eginiko lana goraipatuko dute. Izan ere, Navarrok ibilbide oparoa egin du herriko historia eta ondarearen ikertzen, artikulu eta liburu ugari plazaratuta.

"8 mila bihotzez" erronka egingo dute Laudion irailaren 20tik 21era

Sortzetiko kardiopatia duten haurrei, gazteei, eta haien familiei laguntza emateko ekimen bat antolatu dute elkarlanean Laudioko Udalak, Bihotzez elkarteak eta Orkatzak Mendi Taldeak. Irailaren 20 eta 21eko asteburuan izango da jardunaldi solidarioa, "8 mila bihotzez" izenpean. Izan ere, ekimenaren helburua 8.000 metroko desnibela betetzea da, eta hamalau aldiz igoko dira Goikoganeko gailurrera horretarako. Hamalau igoera horietako bakoitza eskualdeko kirol talde edo elkarte batek babestuko du. hamasei dira, osotara, elkarte babesleak.

Goikogane mendi taldeak babestuko du azken igoera, Ekina Ezinez Egina elkartearekin batera, eta horri esker, Unai, mugikortasun murriztua duen 11 urteko gaztea, mendi gailur batera igoko da lehenbiziko aldiz.

Mendi ibilaldiez harago, askotariko ekintzak antolatu dituzte larunbaterako eta egitaraua egun osoan zehar luzatuko da.

XXV. Antzinako Azokarako dena prest Artziniegan

Artziniegarrek ez dute atsedena hartzeko tarte askorik izango, jaiak amaitu eta bost egunera izango baitute udalerriko urteroko zitarik garrantzitsuenetako bat: Antzinako azoka. Datorren asteburuan egingo dute, irailaren 14an; eta, ohikoan bezala, goizetik arratsaldera arte luzatuko da egitaraua. Baina aurtengo zita berezia izango dela aurreikusi daiteke, ekimenaren XXV. edizioa izango delako. Udalak gogorarazi du ekimena modu herrikoian sortu zela eta filosofia hori mantentzen dela gaur egun, ekimena antolatzen duen lantaldearen bidez.

20. urteurrena ospatuko du Luis Vilek

Aurten 20 urte bete dira Luis Vilek bere bakarkako ibilbidea hasi zuenetik. Hori ospatzeko, ikuskizun berezia prestatu du sortzaile amurrioarrak, bere seme Jonarekin baterian eta Josean Vallerekin teklatuan eta koruetan. Datorren larunbatean igoko dira oholtzara lehenbiziko aldiz, 20:00etan Amurrio Antzokian.

Alberto Bargos
18:00 // Askaria
18:30 // Eskulan tailerra
Arespalditzan

HITZALDIAK

09.13 Ostirala
19:00 ZUHATZA
***AIARA, ONCE MESES EN GUERRA* LIBURUAREN AURKEZPENA**
Gizarte etxean

JAIAK

09.13 Ostirala
LAUDIO
LATIORROKO JAIAK
18:00 // Danborrada
19:00 // Txupinazoa eta buruhandiak
19:00 // Ardo-dastatzea
20:00 // Familientzako ikuskizuna Traka matrakaren eskutik
20:00 // Untzueta dantza taldearen erakustaldia
21:00 // Kontzertuak: Zinkha, Kaos etiliko eta DJ Teso
Latiorro auzoa

09.14 Larunbata
LAUDIO
LATIORROKO JAIAK
08:00 // XIV. mendi martxa
11:00 // Puzgarriak, umeentzako tailerrak eta jolasak
12:00 // Igel-txapelketa
12:00 // Musika bandaren kalejira
12:00 // Arloteen poteoa
14:00 // Herri bazkaria
16:30 // Bingoa
16:30 // Mus txapelketa
18:30 // Battuere Batukada
19:00 // Txapel eta alpargata jaurtiketa
20:00 // Kontzertuak: Walter Ego, Periferia, Gautegun erromeria eta DJ Masa
Latiorro auzoa

09.14 Larunbata
ARRANKUDIAGA-ZOLLO
ATXETAKO JAIAK
Goizean zehar baserriko produktuen salmenta egongo da
12:00 // Txupina
12:00 // Puzgarriak eta buruhandien tailerra
13:00 // Marmitako eta tortilla txapelketa
14:30 // Sarien banaketa eta bazkaltzera
16:00 // Makillajea, puzgarriak eta jolasak
17:00 // Buruhandiak
18:30 // Partyman
Nagusien etxea

09.21 Larunbata
LAUDIO
"8 MILA BIHOTZEZ" EKIMEN SOLIDARIOA
09:00 // Baserritarren produktuen azoka
10:30 // Haurrentzako herri kirolak
11:00 // Goikoganera azken irteera
11:15 // Hamaiketako solidarioa
13:30 // Erronkaren amaiera eta parte hartzaileei harrera
14:00 // Herri bazkaria
16:30 // Bingo solidarioa
18:00 // Zunba
19:00 // Iratzar erromeria
Herrigunean

09.21 Larunbata
11:00 / 13:00 ARTZINIEGA
OGIBIDE ANTZEZTUAK
Artziniega Museoan

09.22 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
BISITA ANTZEZTUAK
Izen ematea Aiaraldea.org webgunean
Alde zaharrean

09.21 Larunbata
15:00-22:00 AMURRIO
EGURRE JAM
15:00 // Paellada herrikoia (6 euro)
17:00 // Herriko gazteen erakustaldia
17:30 // Jam librea
18:00 // Profesionalen erakustaldia
18:30 // Aereo altuena (BMX eta skate)
19:10 // Trikimailu hoberena (BMX eta skate)
19:50 // Jam librea
20:30 // Cuatro Bancos
22:00 // Jaia eta iltze jolasa
Skateparkean

09.22 Igandea
12:30 AMURRIO
ARTZAIN EGUNA
Egun osoko egitaraua egongo da
Herrian

09.25 Asteazkena
12:30 LAUDIO
JUAN CARLOS NAVARRO ULLESI OMENALDIA
Kultura etxeko Arraño aretoan

INFO +
aiaraldea.eus

elkarrizketa

“Ezin duzu osasun zentro bat izan pertsonal egokirik gabe, horretarako hobe genuke pertsiana ixtea”

OSAKIDETZAKO ADMINISTRARIA ETA ZIU MUGIKORREKO MEDIKUA DIRA **SARA RUILOPE** eta **URKO BLANCO** HURRENEZ HURREN. OSAKIDETZAKO LARRIALDI ZERBITZUEN EGOERAREN INGURUAN HAUSNARTU DUTE AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Iragan abuztuan mediku arreta egokirik jaso gabe bihotzekoak jota zendu zen herritarraren kasuak berriro ere jarri du fokua Osakidetzako profesional gabezian.

Urko Blanco: Egoera larria da, baina egoera hau ezaguna zen aspalditik. Iaz Aiaraldeko udal guztiek mezua jaso zuten ohartaraziz udan eta opor sasoian medikurik ez zela egongo eskualdeko etengabeko arreta guneetan eta ZIU mugikorrean, eta, ondorioz, udalerriek osasun zerbitzu egokia ez zutela izango Laudioko eta Aiarako Udalek erantzun zuten mezua soilik, gainerako Udalen interes falta oso larria iruditzen zait.

Osasun arreta egokiaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara? Zein da larrialdi zerbitzuek halabeharrez eskaini beharko luketena?

U.B.: Oso sinplea da, kategoria guztietan profesionalen % 100 egon beharko litzateke lanean, txanda guztietan: Etengabeko Arreta Guneetan medikua, erizaintza zerbitzua eta zeladorea; ZIU mugikorrean, aldiz, medikua, erizaintza zerbitzua eta teknikoa. Hori da herritarrek jaso behar duten arreta, eta kategoria guztien lana ezinbestekoa da larrialdi zerbitzuek ondo funtzionatzeko. Gainera, baliabideak ez dira oso ugariak.

Uda honetan, ordea, ez da beti horrela gertatu.

U.B.: Hala da bai, medikurik gabe egon dira askotan larrialdi zerbitzuak. Erizaintza zerbitzuarekin ordezkatu dute hainbatetan mediku falta, baina hori ez da prozedura egokia, erizain batek ezin du mediku baten lana egin.

Uda sasoia igarota, pentsatu nahi dut egoera zertxobait bideratuko dela. Gabonetan, ordea, antzeko egoera baten aurrean egongo gara berriz.

Noiztik bihurtu da hain ohikoa larrialdi zerbitzuetan mediku falta egotea?

U.B.: Azken bi urteetan asko areagotu den tendentzia dela esango nuke. Duela urte batzuk ez-ohiko egoera zena guztiz normala bihurtu da gaur egun. Are onartezinagoa da horrelako zerbitzu bat profesionalen ordu-estrekin eustea, hori partxe bat baino ez da, baina arazoak bertan jarraituko du.

Eta zerk eragin du egoera hori?

U.B.: Zerk? Nik argi daukat kudeaketa oso txarraren ondorio dela, OSI Barrualdeko eta Larrialdi Zerbitzuetako arduradunen kudeaketa eskasaren emaitza da honakoa.

Mediku falta larria dago Osakidetzan, profesionalak erretiratuz doaz eta ez dago horiek ordezkatzerik. Larriena da egoera hau aspalditik zela ezaguna, eta ez dela inolako erremediorik mahaigaineratu. Horrez gain lan-baldintzak ez dira batere onak, eta jendeak egundoko malabarak egin behar ditu bizitza profesionala eta pertsonala kontziliatzeko. Ez dago inolako planifikaziorik, ez duzu *kartelerarik* [lan-egutegia]... Horrek esan nahi du edozein unetan sartu ahal dizkizutela txandak.

Sara Ruilope: Horrek talka egiten du guztiz kontziliazio profesional eta familiarrekin. Profesional asko *kartelera* gabe daude, hurrengo astean nola lan egingo duten jakin gabe.

U.B.: Ez da normala ezta ere 2018an egindako Enplegu Publikorako Eskaintza 2024an ebaztea, sei urteren ostean. Osakidetzako profesional askok eta askok ziurgabetasunean igaro dituzte sei urte.

S.R.: Hori bada Osakidetzaren gestio txarraren beste adibide argia. Langileen kudeaketan gabezia handiak daude, eta horrek profesionalak erre egiten ditu. EPEa ebatzi bitarteko denbora horretan guztian behin behineko langilea zara, ziurgabetasunean bizi zara. Ulergaitza da beste administrazio publikoetan gertatzen ez dena hemen gertatzea. Nik lan egiten dudan lekuan, nire kategorian, 50 lankide gaude, postu estrukturalak bi baino ez dira. Oso baldintza prekarioak dira horiek.

Kategoria guztietan gertatzen da hori. Larrialdi zerbitzuetan egun bakarreko kontratua duen jendea ari da lanean, horiek ez dira baldintza egokiak. Osakidetzak gaur egun Aldi Baterako Laneko enpresa bat dirudi.

Hain agerikoa izanik larrialdi eta lehen arreta zerbitzuetan dauden gabeziak, Administrazio Publikoak hartu al du horiek bideratzeko erantzukizunik?

S.R.: Nik ez dut aldaketarik ikusi azken hilabeteetan. Positibotzat jotzen dudan gauza bakarra da arduradun politikoek behingoagatik onartu egin dutela egoera ez dela ona. Urtarrilean dena ondo zihoan, baina hauteskundeak iristerakoan guztiek onartu zuten arazoa zegoela. Hori onartzea bada zerbait. Ikusiko dugu nora garamatzaten, ni ez naiz oso optimista.

U.B.: Uste dut administrazioa ez

elkarrizketa

dagoela oso kezkatuta: urtarrilean pertsona bat hil zen mediku faltagatik, eta abuztuan beste pertsona bat hil da mediku faltagatik. Zortzi hilabete hauetan ez da neurri bakar bat ere hartu.

S.R.: Lotsagarria da Laudioko eta eskualdeko egoera. Zortzi hilabetetan bi pertsona zendu dira, eta egoera ez da batere aldatu. Ez zen bigarren kasurik gertatu behar, baina gertatu da; beste herritar bat zendu da mediku arreta egokia jaso gabe. Ezin duzu osasun zentro bat izan pertsonal egokirik gabe, horretarako hobe genuke pertsiana ixtea. Egoera normalizatzen ari gara, eta hori onartezina da.

U.B.: Nik jakin nahiko nuke zer ari diren egiten Aiaraldeko udalak egoera honen aurrean. Hau ez da soilik Laudioko arazoa. ZIU mugikorrean edo Etengabeko Arreta Gunean medikurik ez egotea eskualde osoaren arazoa da. Zer neurri ari dira hartzen egoerari erantzuteko?

Uste duzue paziente eta herritarron erantzuna egokia ari dela izaten?

U.B.: Nik uste herritarrak ez direla behar beste mugitzen ari,

“Oso sinplea da, kategoria guztietan profesionalen % 100 egon beharko litzateke lanean, txanda guztietan: medikua, erizaintza zerbitzua eta zeladorea edo teknikoa”

ez dakit informazio faltagatik den edo beldurragatik den. Baina manifestazio bakar batek ez du egoera hau aldatuko.

S.R.: Nik paziente guztiak gonbidatzen ditut kexak eta erreklamazioak jartzera. Kontziente naiz Osakidetzak ematen dituen erantzunak ez direla indibidualizatuak, baina, hala eta guztiz ere, erreklamazioak jartzera animatzen ditut beti. Kexak ezin dira estatistika hutsetara mugatu, bestela badirudi dena ondo dabilela, eta ez da egia. Zirrikituak zabaldu behar ditugu egoera iraultzeko.

U.B.: Adibide bat jartzearren. 2022ko gabonzahar-gauean txanda egokitu zitzaidan Laudioko EAGan eta Amurrioko EAGan ez zen medikurik egon. Amurrioko paziente guztiak Laudiora etorri behar ziren. Askok nirekin ordaintzen zuten haserrea. Guztira 98 paziente ikusi nituen 24 orduko txanda bakarrean. Kexa jartzera animatu nituen guztiak, baina bizpahiruk baino ez zuten erreklamazio orria bete.

Kalera atera behar gara, ez dago beste erremediorik. Etengabeko mobilizazioa behar da egoera iraultzeko, eta ezin gara beste ezbehar baten zain geratu.

Mila herritar baino gehiago mobilizatu ziren iragan abuztuan, ZIU mugikorrean medikurik ez egoteagatik herritar bat zendu izana salatzeko. **Aiaraldea.eus**

kultura

“Modaren mundua zaila da, baina gustatzen zait eta orain ez badut egiten, ez dut egingo”

MODA MUNDUA BETIDANIK IZAN DU PASIO **ONINTZE ARANBURUk** (OKONDO). JOSTUNEN FAMILIATIK DATOR ETA PATROIGINTZA, JOSKINTZA ETA ARTISAU METODOAK IKASI DITU. EZKONTZA JANTZIAK EGITEA GUSTOKO DU GEHIEN, HORRETAN IKUSTEN DU BERE BURUA ETORKIZUNEAN.

Testua **Maider Ramirez Martin**
Argazkia **Naia Vallejo Torres**

Zein da zure harremana modarekin?

Betidanik oso gustuko izan dut moda mundua, puntua egitea eta jostea; izan ere, jostunen familiatik nator. Hala ere, ez nuen era profesionalean ikusten, hobby moduan baizik, eta batxilergoa bukatzean hainbat urte eman nituen ingeniaritza ikasketak egiten.

Zergatik erabaki zenuen modari lotutako ikasketak egitea?

Pasioak eraginda. Ingeniaritza utzi eta nire zaletasuna zena jarduera profesionaltzat hartzea erabaki nuen. Informazioa bilatzen hasi nintzen, eta Patroigintza eta Moda goi mailako zikloa egin nuen Barakaldoko Nicolas Larburu zentroan, bi urtez. Bertan, patroigintza eta joskintza industrialari buruzko ezagutza handia jaso nuen: diseinuak nola egin, ze makinak erabiltzen diren, prozesua, ze material erabili ahal diren, oihal bakoitzaren funtzioa... Esperientzia oso ona izan zen, eta bukatu nuenean Bilboko IFEELNUT enpresan egin nituen praktikak.

Zein izan da zure ikasketa ibilbidea orain arte?

Goi mailako zikloa bukatu nuenean, joskintza xehetasunak, artisau-metodoak eta bere erabilerak beti interesatu zaizkidanez, Goi Mailako Joskintza ikasten jarraitzea erabaki nuen, Javier Barroetaren Goi Mailako Joskintza eskolan, Bilbon. Bertan, pieza bakoitza egiteko era guztiz ezberdina da; artisaua da, neurrira egindako piezak sortzen dira, eta puntada eta xehetasun bakoitza zaintzen da. Antzinako metodoa da, gure amamek erabiltzen zuten metodoa.

Bukatu bezain pronto, Cristobal Balenciaga museoan goi mailako jantzigintza ikastaro bat egiteko aukera ere izan dut.

Hemen bakarrik ez, Londreseko Saint Martins Unibertsitatean ere egon zinen.

Bai. Iragan irailean, Javier Barroetaren Goi Mailako Joskintza eskolan bigarren urtean negoen bitartean, BIAAFek (Bilbao International Art And Fashion) ematen dituen dirulaguntzei esker, Londoneko Saint Martins Unibertsitatean egon nintzen hamabost egunez.

Transmision-eko lehenengo etapa egiten da bertan. *Transmision* BIAAFek eta Balenciaga museoak egiten duten proiektu bat da, eta bi astez, Balenciagan oinarrituta, diseinu edo proiektu bat egitean datza. Koadernoan marrazkiak eta collageak egiten hasten zara, eta gero manikian oihal birziklatuekin, paperarekin... proiektua egiten zoaz. Bi asteak igarotzen direnean proiektua aurkezten duzu.

Bigarren etapa lehiaketa da. Bigarren etapa horretara pasatzea lortzen baduzu, Balenciaga Museoan klaseak emateko aukera duzu eta, ondoren, irabazleetako batek bere proiektua aurkezten du Balenciaga Museoan. Ni ez nintzen bigarren etapara pasatu, baina tira, lehenengoa egiteko aukera izan nuen.

Diseinu propioak egiten dituzu?

Gradu Amaierako Proiektuan nire lehen ezkontza bilduma aurkeztu nuen, Euskalduna Jauregian, *Amalore* deiturikoa. Ezkontzako soinekoetan eta botanikan dago inspiratuta, eta ehoziri eta parpaila teknikak erabili ditut. Hiru jantzi egin ditut guztira.

Saltzen dituzu zure diseinu propioak?

Ezkontzakoak ez, baina bai, gauzak egin ditut. Gainera, nire bikotekidearen amak Amurrioko denda batean egiten du lan, nik ere bertan lan egiten dut, eta horrek ere lagundu dit gauzak nola erabili behar diren jakiten.

Ikusi eta ikasi duzun guzti horretatik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ezkontza diseinuak. Izan ere, diseinu hauetan eskuz egindako jantziak izatea eta detaileak edukitzea asko baloratzen da. Nire amamak erosten zituen jantziak bezalakoak dira, kalitatezkoak eta bakarrak.

Zer asmo duzu orain?

Irailean Madrileko ospe handiko ezkontza-soineko enpresa batean hasiko ditut praktikak, lau hilabetez, eta gero bertan geratzeko asmoa daukat.

Zertan ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Jantzi hauek egiten. Lehenengo kanpora joan eta probatu nahi dut, etxera itzultzeko denbora beti izango dut. Okondon ere badago aukera lan egiteko, baina egia da hemendik kanpo gehiago dagoela. Gainera, jendeak lana baloratzen du baina askok ez dute hori ordaindu nahi. Dendetan jendeak erosten du, baina norbaitek zerbait egiten duenean, pentsatu behar duzu horren atzetik denbora eta materiala dagoela, eta bakarra dela. Modaren mundua zaila da, baina gustatzen zait eta, orain ez badut egiten, ez dut egingo.

babestutako edukia

kultura

“Emakumeok belaunaldiz belaunaldi transmititu ditugun zauriak eszenifikatu nahi ditugu”

MARIA ITURBE (Amurrio, 2004) eta **MAIALEN RAMIREZ** (Tafalla, 2004)
DANTZERTIKO ARTE DRAMATIKOKO GRADUKO IKASLEAK DIRA. FAKTORIAKO OHOLTZA BALIATU ZUTEN UZTAILEAN, ESKU ARTEAN DAUKATEN PIEZA SORTZEKO.

Testua **Maider Ramirez Martin** Argazkia **Naia Vallejo Torres**

Ama-alaben arteko harremanak landu nahi izan dituzue piezan. Zergatik aukeratu zenuten gai hau? Eta zer da lanarekin transmititu nahi duzuena?

Maialen Ramirez: Alabak garen heinean azalean bizi dugun esperientzia bat da. Gaiari buruz hitz egiten konturatu ginen harreman mota berezia dela, alde batetik, elkarren arteko maitasunagatik, eta baita gizartean dagoen estigma sozialagatik ere.

Gainera, emakume izateagatik, heldutasunean konturatu gabe azaleratzen diren biolentzia leunak daudela ere ikusi genuen.

Maria Iturbe: Ama-alaba harremana aukeratzen ez dugun zerbait da. Eta harremanaren barruan badaude patroiak, bukleak edo ezarritako joerak, ez direnak aldatzen. Eta horiekin apurtzeko beharra ikusten dugu guk. Zaintza harremanak analizatzeko beharra dago.

M.R.: Belaunaldiz belaunaldi emakumeok, hein batean, gure zauriak transmititu ditugula uste dugu, eta gure ardura da hori ikusaraztea. Hori eszenifikatzea, tabu ez bihurtzeko.

***Paktu bat* da zuen lanaren behin-behineko izenburua. Zein da zehazki paktua?**

M.I.: Guretzat ama-alaben harremana odol paktuaz edo erditzeaz harago doan zerbait da. Nolabait ardura sentitzen dugu gure amen jarrera batzuk erreproduzitzeko, esate baterako, zaintzari dagokionez, nahiz eta jarrera horiek batzuetan mingarriak izan.

M.R.: Argi ikusten da, esaterako, harreman ona ez duten ama-alaben artean. Sarritan, nahiz eta harreman hori mozten saiatu, badago biak lotzen dituen zerbait indartsuagoa dena, eta hori ere guretzat bada paktu bat.

Sormen prozesuaren zein fasetan zaudete orain?

M.R.: Zirriborro fasean gaude. Ideiak partekatzen, amankomunean jartzen eta ideia bakoitza nola eszenaratu dezakegun deskubritzen.

Izan ere, askotan, nahiz eta ideia jakin bat izan, gerora, oholtzara eramaterako orduan esan nahi dugun hori aldatzen da agian.

M.I.: Sentsazioak eta kontzeptuak gorpuzten saiatu gara. Dena den, orain gauden fase honetan burura datozkigun ideiekin nahi duguna egin dezakegu: guztiak hartu ala bat ere ez. Izan ere, oraintxe bertan ez da pieza bat bere osotasunean. Sei eszena dira zehazki, non ama-alaba harremanekin zerikusia duten hainbat egoera ikusten diren. Lau kontzeptutik abiatuta egin dugu lan: erditzea, zaintza, indarkeria eta barkamena.

Nolakoa izan da transmititu nahi duzuen hori oholtzara eramateko prozesua?

M.R.: Denetarik izan dugu: blokeoak, argitasun momentuak... Modu naturalean gertatu da dena, espontaneoki. Gainera, ikusi dugu, buruan ideia asko izan arren, guztiak ezin direla aurrera eraman, eta batzuetan badaudela baztertu beharrekoak. Asko ikasi dugu dugunarekin aurrera egiten.

M.I.: Hainbat tresna ere erabili ditugu. Adibidez, idazketa automatikoko ariketak egin ditugu, hau da, bi minututan burutik pasatzen zitzaigun hori guztia idaztea hortik testu bat ateratzeko.

Inprobisazioetatik ere atera dugu materiala. Baita ere, elementuen poetikotasuna erabili dugu: ohea, izarak, hariak...

M.R.: Prozesua nahiko fisikoa izan da, eta elementuekin jolasean osatzen joan da, unean-unean.

Faktorian egin duzue egonaldi artistikoa. Zer eskaini dizue espazio honek? Nola sentitu zarete?

M.I.: Espazio hau izatea oso aukera ona izan da. Oso ondo argiztatuta dago eta horrek inspirazioa ere pizten du. Hainbat txoko izan ditugunez, horietan guztietan sortu ahal izan dugu. Materiala eta azpiegiturari dagokienez ere ez zaigu ezer falta izan.

M.R.: Modu askean sortzen ibili gara Faktorian. Espazioa gure etxea bilakatu da eta, emaitza borobil eta finko bat lortzeko beharrik eta presiorik ez denez egon, gure erritmoan lan egin ahal izan dugu.

M.I.: Etxean sentitu gara eta horrek eragina izan du lan egiteko moduan. Izan ere, eroso sentitu gara, eta askatasunez eta esperimentaziotik sortzen ibili gara, ez azken produktu bat lortzeko helburu finkoarekin.

Etorkizunari begira zer asmo duzue?

M.R.: Orain piezari deskantsatzen utzi nahi diogu, airea har dezan. Baina asmoa da hemendik eta denbora batera berriz ere hartzea eta ondo lotzea, hari bat jarrai dezan.

Azaroaren 15ean helduko da zinemetara *Azken erromantikoak* filma

Testua
Maider Ramirez Martin

Otsailean abiatu zuten David Perez Sañudok eta bere lantaldeak Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* nobelan oinarritutako filma sortzeko prozesua. Orain, badakigu azaroaren 15etik aurrera ikusi ahal izango dugula pantaila handian.

Miren Gaztañagaren azalean ikusiko dugu Irune, istorioaren protagonista. Laudioren antza duen herri industrial bateko emakumea da bera: paper fabrika bateko langilea, nahiko hipokondriakoa, maniatikoa eta bakartia. Filmean Iruneren bizitza egun batetik bestera nola aldatzen den ikusi ahalko dugu, hainbat gertakizunek baldintzatuta: bularrean koskor bat topatzea edo lantegiko gatazka batean sartuta egotea, alegia.

Miren Gaztañaga eta David Perez Sañudo grabaketan, Laudion. **Aiaraldea.eus**

Irailean, Zinemaldian

Zinema areto guztietara heldu baino lehen, ordea, Donostiako Zinemaldiko New Directors kategoriaren barruan estreinatuko da filma. Sail horretan azken urtean ekoitzi diren eta zinemagileen lehen edo bigarren pelikulak diren lanek hartzen dute parte. Uztailean Miren Gaztañagak komunikabide honi azaldu zion garrantzitsua dela pelikula bat non estreinatzen den, Zinemaldian sartzea ez dela horren erraza eta, beraz, "oso pozik" zeudela aukerarekin.

Hainbat kokapenetan grabatu dute Perez Sañudoren pelikula, hala nola Elgoibarren, Gernikan, Lisboan, Rondan... Otsailaren 14an, baina, Laudion izan ziren grabatzen.

Sormen egonaldiak eta bekak jarri ditu martxan Kultur Faktoriak

Testua **Oihane Ozaeta Fernandez**

Aiaraldeko Kultur Faktoriak eskualdeko zein Euskal Herri osoko kultura eta sormena garatzeko ekimen berri bi aurkeztu ditu. "Murgildu sormenean" bekak sortzaileentzako egonaldiak eskaintzen ditu, eta "Arte Arnasa" bekak, berriz, dirulaguntzak. Bakarka edo taldeka aurkeztu daitezke proposamenak. Hori bai, bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du. Aiaraldeko Kultura Lantaldeak osatuko du epaimahaia: Faktoriako kultura arduradunak, sortzaile profesional batek eta kulturzale batek.

Kontuan hartuko dute Aiaraldearekin loturaren bat izatea, arte diziplinen arteko hibridazioa lantzea, proiektuen esperimentazio izaera edota balio eraldatzaileak lantzea, hala nola, feminismoa, kulturartekotasuna edota inguru-mena, besteak beste. Zalantzak argitzeko kultura@aiaraldea. eus helbidera idatzi daiteke edo 633 51 73 83 telefonora deitu.

Faktorian garatuko dira sormen egonaldiak. **Aiaraldea.eus**

kultura

“Erraza da gure letrekin identifikatzea, guztion arazo eta kezkak jorratzen dituztelako”

DERIBA TALDEKO KIDEAK DIRA ALEX HIJARRUBIA, JON ANDER MILLAN, MAREN GOTI ETA ALEX YARZA. ESKUARTEAN DUTEN EPA GRABATZEN HASIKO DIRA UDAZKENEAN, ETA BITARTEAN AHALIK ETA OHOLTZA GEHIENETARA IGOTZEKO ASMOA DUTE.

Testua **Maider Ramirez Martin**
Argazkia **Joane Maiz Martinez**

Hasiberria da Deriba taldearen ibilbidea, baina hau ez da zuen lehen proiektua. Nondik zatozte eta nola sortu zen taldea?

Deriba taldea Maren Gotik, Jon Ander Millanek, Alex Yarzak eta Alex Hijarrubiak osatzen dugu. Duela bizpahiru urte Jon Anderrek eta Alex Hijarrubiak Voltium taldean jotzen zuten. Horren aurretik ere beste bi taldetan aritu dira: Etenik ez eta 30-06.

Azken bi talde horietan punk metala eta rocka egiten zuten, eta Voltiumen heavy metala eta thrash metala, gehien bat. Voltiumen ibilbidea amaitu zenean Jon Ander eta Alex Urduñako Alondegira etorri ziren, eta musika egiteari ekin zioten eta orduan jaio zen Deriba taldea.

Nondik dator Deriba izena?

Deriba izenarekin gaurko gizartearen arazoak azaleratu nahi genituen, eta galduta egotea eta noraezean ibiltzea azpimarratu.

Orain arte beste talde batzuen bertsioak zein abesti propioak jo dituzue. Zeintzuk dira erreferentetzat dituzuen talde horiek?

Hainbat talde daude guztiontzat erreferenteak direnak, hala nola Berri Txarrak, Kuraia edo Rise Against. Baina kide bakoitzak ere baditu bere erreferente propioak, estilo ezberdinetako musika asko entzuten baitugu.

Zuen abestiak sortzen eta grabatzen joan ahala bertsioak alde batera uzteko asmoa duzue?

Ez dugu uste beste artista batzuen abestiak jotzeari utziko diogunik. Azken finean, gure erreferenteak dira eta euren abestiekin hazi gara, eta, beraz, haien abestiak jotzen jarraituko dugu.

Esan daiteke rock generoaren barruan kokatu daitekeela zuen musika. Eroso zaudete genero horretan lerrokatuta? Ala beste estilo batzuei ere atea zabaltzeko asmoa duzue?

Egia da, oro har, rocka egiten dugula, eta rockaren barruan punk rocka jotzen dugula esan daiteke. Dena den, ez diegu beste genero edo estilo batzuei atea ixten, eta horiek jorratzea ere gustatuko litzaiguke.

Laster zuen lehen EPa plazaratuko duzuela iragarri duzue zuen sare sozialetan. Proiektuaren zein fasetan zaudete orain eta nolakoa izan da orain arteko prozesua?

Oraintxe bertan kontzertuak ematen ari gara. Izan ere, dirua behar dugu EPa grabatu ahal izateko, eta kontzertuak dira gure diru-iturri nagusia. Bien bitartean ditugun lau abestiei azken ukituak ematen ari gatzaizkie Urduñako Alondegiko entsegu gelan.

Letrei dagokienez zer gai jorratu nahi dituzue zuen abestietan?

Gure letrek munduaren eta gizartearen arazoei buruz hitz egiten dute, eta baita gure sentimenduei buruz ere. Horregatik erraza da gure letrekin identifikatzea, guztiok partekatzen ditugun arazo eta kezkak jorratzen dituztelako.

Aurreratu dezakezue EPari buruzko beste zerbait?

Seguruenik irailean sartuko gara Urdulizeko Tio Pete estudioan grabatzera, eta nahasketa Aritz Arregik egingo du. Lau abesti grabatuko ditugu, horietako bi euskaraz izango dira, eta beste biak gaztelaniaz. Sekulako diskoa izango da.

Datorren ikasturteari begira, zeintzuk dira taldearen asmoak?

Momentuz epe laburrean pentsatzen ari gara. Esan bezala, ahalik eta kontzertu gehien eman nahi ditugu eta irailean EPa grabatzeari ekin.

babestutako edukia

Energia berriztagarria sortu eta salerostea helburu duen kontsumo kooperatiba da Goiener, eta bertako langileak dira Aritz Uribetxebarria, Klaudia Lopez de Viñaspre eta Ekain De Olano. Kooperatibaren nondik norakoez, eskualdean egindako ekarpenez eta etorkizuneko erronkez mintzatu dira.

“Trantsizio energetikoan eta energia burujabetzan aurrerapausoak emateko tresna praktikoa izan nahi dugu”

Zer da Goiener?

Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba bat da, irabazi asmorik gabea eta euskalduna. Dagoeneko, 18.000 bazkide gara eta 22.000 argindar kontratu kudeatzen ditugu; kontratua gurera aldatzea erraza da, eta, horri esker, bazkideek kooperatiban aktiboki erabakiak hartzeko eskubidea dute eta baita sorkuntza proiektuetan parte hartzekoa ere. Beraz, Goienerrera etorriz, bidezko trantsizio energetikoaren alde egingo duzu.

Proiekturik duzue orain esku artean?

Goienerren helburuetako bat bazkideek kontsumitzen duten energia proiektu propioen bidez sortzea da, eta proiektu ederrak sortu ditugu gure ibilbidean: autokontsumo proiektuak ikastetxeen eraikinetan, hidraulika txikietan inbertsioak, herriz herri energia komunitateak sortzen laguntzea, Europa mailako proiektuen garapena...

Tokiko proiektuen alde egiten dugu, eta autokontsumo kolektiboaren bidez, ekoizpena ahalik eta gehien aprobetxatu nahiko genuke. Herritarrak ere inplikatu nahi ditugu aktore printzipal bihurtzeko, energiaren inguruan ahaldundu eta kontzientzia hartzeko.

Ezkerretik eskuinera, Klaudia Lopez de Viñaspre, Ekain De Olano, Sandra Hernando eta Aritz Uribetxebarria, Goienerren Gasteizko egoitzan. **Aiaraldea.eus**

Zer nolako ekarpena egin duzue Aiaraldean?

v Aiaraldean egin dugun ekarpena hitzaldien bidez egon da lotuago orain arte. Adibidez, Amurrion bazkide egun bat ospatu genuen eta Okondon ere egon ginen, Mendiak Bizirik elkartearekin makroproiektu eolikoen arriskuak ezagutzera emateko eta gure energia propioa ekoizteko beste eredu bat badagoela azaltzeko. Proiektu posibleak ere martxan ditugu, Aiaraldea Ekintzen Faktoriarekin, edo bestelako komunitate energetikoekin. Zein bide ireki aztertzen ari gara.

Zuen begirada, baina, zabala da.

Euskal Herri mailako proiektua gara. Nagusiki Hegoaldean egiten dugu lan, gure jarduera energia merkaturatzen hasi zelako, eta hori Hegoaldean baino ezin daiteke egin. Iparraldean, I-ener ari da lanean; harreman estua dugu haiekin eta lan amankomunak ditugu. Gure lan esparrua eta ikuspegia oso lotuta dago Euskal Herriko lurraldetasunari; tokiko enpresa eta eragileekin aritzen gara elkarlanean. Trantsizio energetikoan eta energia burujabetzan aurrerapausoak emateko tresna praktikoa izan nahi dugu. Energia herritarren eskura egon beharko litzateke. Ez dugu pertsonak kontsumitzaile hutsak izaterik nahi, baizik eta prozesu osoan parte hartzea.

goiener

Konstituzio plaza 1,
GASTEIZ
945 15 74 44

San Mames zumarkalea 26,
BILBO
94 627 77 01

www.goiener.com
@goienertaldea

kirola

“Bartzelonako Olinpiar Jokoetan lortutako urrezko domina gehiago estimatu nuen Atlantan azkenak izan ginenean”

SILVIA MANRIQUEk (LAUDIO, 1973) 1992KO OLINPIAR JOKOETAN PARTE HARTU ZUEN ETA, GAINERA, URREZKO DOMINA IRABAZI ZUEN HOCKEYKO DIZIPLINAN.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Zein da zure oroitzapena 1992ko Olinpiaden inguruan?

Imajina ezazu. Oroitzapen oso ona daukat, ametsa betetzea izan zen.

Une horretan 19 urte zenituen. Nola heldu zinen Olinpiar Jokoetara?

1990eko urtarrilean ikusi ninduten Laudion, Espainiako gazte kategoriako txapelketan. Proposatu zidaten 18 urte azpiko selekzioarekin joatea eta uda horretan 21 urte azpiko selekzioarekin aritu nintzen. Irailean Madrilera joan nintzen bizitzera eta selekzio absolutura heldu nintzen abenduan. Hurrengo urtean egon nintzen Europako Txapelketako prestaketan eta Olinpiar Jokoetan. Dena oso azkarra izan zen.

Oso gaztea nintzen eta emaitzak borobilak izan ziren. Banekien lan handia egin behar nuela heltzeko, baina Bartzelonan lortutako urrezko domina Atlantako Olinpiar Jokoetan ostean estimatu nuen gehien, bertan azkenak izan ginelako. Hor konturatu nintzen asko prestatu eta entrenatu zaitezkeela baina, zorte apur bat ez baduzu, helburuak bete gabe gera zaitezkela.

1989an norbaitek esan izan balizu 1992an urrezko domina eskuratuko zenuela, zer pentsatuko zenukeen?

Ez nukeen sinistuko inondik inora. Are gehiago, 1989an AEKn nenbilen euskara ikasten eta ariketa batean galdetu ziguten zeintzuk ziren gure hiru ametsak. Bat bazen domina olinpikoa irabaztea. Ez nengoen ezta selekzioan ere, guztiz ezinezkoa zen nire buruan. Beste ametsak ziren astronauta izatea eta nahi nituen ikasketak amaitzea.

Nola baloratzen duzu zure parte hartzea 1992ko Olinpiar Jokoetan?

Ezin positiboagoa. 1990eko abenduan egin nuen debuta selekzioarekin eta 1992ko abuztuan urrezko domina ari ginen jasotzen. Olinpiar Jokoetan minutu guztiak jokatu nituen eta finalerdietan sartu gintuen gola egin nuen. Dena perfektua izan zen.

Jakina, lan eta izerdi ugari egon zen aurretik. Entrenamendu saioak basatiak ziren. 1992ko urtarrilean Kubara jo genuen entrenatzera. Zortzi ordu edo gehiago entrenatzen genuen egunero eta niri 100 kiloko zama jarri zidaten bizkarrean zenbait ariketa egiteko. Oso gogorra izan zen, baina arrakastak dena ezabatzen du.

Orain hobeto baloratzen duzu?

Bai. Hockeyko selekzioak ez zuen aurretik Olinpiar Jokoetan parte hartu. Inoiz ez zen sailkatu eta 1992koetan geunden Bartzelonan zirelako, antolatzaileak izateagatik. Egia da lau urte lehenago selekzioko hautatzaileak galdetu ziela taldeko kideei zer nahi zuten. Ordura arte bezala entrenatuz gero, litekeena zen azkenak izatea. Apur bat gogorrago trebatuta, partidaren bat irabazteko aukera egongo litzateke eta, modu jasanezinean eginez gero,

domina eskuratzeko aukera izango lukete. Ez zegoen bermerik, baina gutxienez Australia edo Alemaniari aurre egiteko parada nahi zuten.

Une horretan zeuden jokalariek erantzun zuten entrenamendu jasangaitzen bidea hartu nahi zutela, ahalik eta hoberen egiteko. Ni bi urte beranduago sartu nintzen selekzioan eta plan hori bazegoen.

Dena den, lehen aipatu bezala, izugarrizko lana egin genuen, baina gero zorionekoak izan ginen. Alegia, Atlantako Olinpiar Jokoetan gogorrago entrenatu ginen eta azkenengoak izan ginen. Ez genuen zorterik izan. Kirol orotan gertatzen da.

Nola bizi izan zenuten Olinpiar Jokoetan ikustea partidaz partida ondo egiten ari zinetela?

Duela gutxi hitz egin genuen eta guztiok geunden ados oso hautatzaile berezia izan genuela. Dominen artean horia zen gogokoena berarentzat eta hori irabaziko genuela esan zigun.

Hala ere, lehen partida 2-2 berdindu genuen Alemaniaren kontra eta kolpea izan zen guretzat. Edonola ere, 2-0 hasi ginen galtzen eta berdintzea lortu genuen. Hori Europako txapeldunaren aurka. Horrek zerbait iradoki zigun. Gero Kanadari irabazi genion gol bakarragatik. Talderik ahulenen artean zegoen eta nekez menperatu genuen.

Berezia izan zen Australiaren kontrako norgehiagoka. Txapeldun olinpikoak ziren eta garaitu genituen. Horri esker finalerdietan sartu ginen eta oso argi genuen urrezko dominaren bila joango ginela.

Finalean Alemaniarekin egin genuen topo berriro eta irabazi nahi genuen.

Atlantan Olinpiar Jokoetan beste aldea bizitzea egokitu zitzaizun, ordea.

Bai. Bartzelonan dena jokatu nuen, Australiaren aurka gola egin nuen finalerdietarako txartela lortzeko... Garrantzitsua nintzen eta kontuan hartzen ninduten.

Atlantan kontrakoa izan zen. Ordezkoa izan nintzen. Egia da partida guztietan jokatu nuela, baina besteak ordezkatzeko. Norgehiagoka bakarrean izan nintzen titular. Justu kontrakoa. Bestalde, Bartzelonako hiribildu olinpikoa ikusgarria zen eta Atlantakoa... amerikarra zen. Ez zuen zerikusirik.

“1989an AEKn egindako ariketa batean adierazi nuen domina olinpikoa irabazi nahi nuela. Ezinezko helburua zen. Beste ametsak ziren astronatu izatea eta nahi nituen ikasketak amaitzea”

Nola antolatu zinen garai horietan?

Ni Madrilera joan nintzen hockey belarrean ikasi nahi nuelako. COU ikastera joan nintzen eta garrantzitsuena ikasketak ziren. Gero heldu zen hockeyaren saria.

COU ikasi nuen, baina hurrengo urtean utzi behar izan nituen ikasketak Olinpiar jokoetan prestatzeko. Gidabaimena eskuratu eta ingelesa ikasi nuen.

Europako Kopa dela eta ezin izan nintzen joan institutura hiru hilabetez eta txarto egin nuen hautaproba. Nire notek behera egin zuten. Hortaz, Olinpiar Jokoetan ondoren errepikatu nuen hautaproba. Irailean egin nuen eta hobetu nuen.

Hori bai, nahi nituen plazak beteta zeuden unibertsitatean. Atlantako hitzorduarekin unibertsitate ikasketak bost urtetan amaitu ordez, sei urtetan egin nuen.

Olinpiar Jokoetatik harago ere, palmares oso handia duzu.

Bai, Europako bi txapeldunordetza selekzioarekin 1995ean eta 2003an. 32 urterekin proposatu zidaten joatea txapelketara.

Klubetan ere aritu zara.

Bai. Real Sociedad klubarekin aritu nintzen 1991-1992 denboraldian. Nik Laudion jokatzen nuen, baina exijitu ziguten maila goreneko klub batean egotea. Gero Madrilgo Club de Campora pasa nintzen. Izan ere, Realarekin jokatzea erokeria zen niretzat. Asteburu guztietan bidaiatu behar nuen. Beti nintzen bisitaria, nolabait.

Jatorrira itzuliz, nola gogoratzen duzu Laudioko garaia?

Oso ondo. Jarraitzen dut harremana izaten nire garaiko jokalariekin. Adibidez, ekainean Espainiako Txapelketa jokatu genuen 40 urtetik gorakoentzat eta Nuria Larrinagarekin egon nintzen. Berak irakatsi zidan jokatzen eta maite dut. Pili Odriozola ere egon zen, berarekin txikitan jokatu nuen eta asko poztu nintzen bera ikustean.

Eskumako argazkian, Silvia Manrique (ezkerrean) 1992ko Olinpiar Jokoetan garaipen bat ospatzen. Ezkerreko argazkian, Granja kiroldegiko norgehiagoka batean **S.M.**

kirola

PILOTA

Iker Larrazabalek hiru urterako luzatu du kontratua Baikorekin

2027ra arte arituko da Larrazabal profesional gisa jokatzen, gutxienez. **Baiko**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hiru urterako luzatu berri du Iker Larrazabalek Baikorekin duen kontratua. Otsailean debutatu zuen pilotari amurrioarrak profesional gisa eta, azken albiste hau ikusita, oraindik bide luzea geratzen zaiola aurreikusi daiteke.

Larrazabalek berak azaldu du denboraldi ona izaten ari dela. "Serie Bko Txapelketetan, Binakako finalera iritsi ginen eta Buruz Burukoa irabazi nuen, eta ditudan aukera guztiak aprobetxatzen saiatzen ari naiz", nabarmendu du kirolari gazteak.

Abuztuko azken larunbatean izan zuen Larrazabalek bere orain arteko azken mugarria, Artola ordezkatuta Lekeition jokatutako CaixaBank Masterseko sailkapen ligako azken jardunaldian.

TXIRRINDULARITZA

Hodei Muñoz fitxatu du Soudal Quick-Step taldeak

Hodei Muñoz Espainiako Kopa irabazi zuen egunean. **RFEC**

Testua
Maider Ramirez Martin

Hodei Muñozek talde berria izango du 2025etik aurrera, bi urterako konpromisoa hartu baitu Devo Team-ekin, Soudal Quick-Step taldeko filial amateurrarekin. Txirrindulari handien taldea da Soudal Quick-Step. Izan ere, bertako txirrindulariak dira, besteak beste, Remco Evenepoel eta Mikel Landa. Beraz, albiste bikaina da Muñozentzat talde belgikar horren interesa piztu izana.

Aurten, Luiaondoko txirrindulariak denboraldi bikaina egin du, Espainiako Junioren Cofidis Kopa irabazita. Ziklo-krosean ere nagusi izan da, Espainiako txapeldun titulua eskuratu baitzuen aurtengo urtarrilean Amurrion, eta ondoren Espainiako Kopan gailendu zen.

FUTBOLA

Emakumezkoen Euskal Ligan egongo da Altzarrate taldea hasi berri den denboraldian

Iragan astean egin zuten Altzarrate taldearen aurkezpena Euskal Ligan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Altzarrate futbol taldea Euskal Ligan arituko da 2024-2025 denboraldian. "Ilusioz" eta "gogo handiz" hartu dute erronka, Jon Aspuru entrenatzailearen esanetan, "oso maila polita eta zorrotza delako", eta "maila handiko aurkariak eta zelaiak" bisitatuko dituztelako.

Hala ere, kirol arloan "denboraldi zaila" izango dela jakitun da Aspuru: "Orain, Euskal Ligako kategoria defendatzea egokituko zaigu, jokalari gazteekin eta ia esperientziarik gabe, ilusio eta lan handiagatik ordezkatu beharko duguna".

Beraz, denboraldirako helburua argia da: "mailaz ez jaistea eta jokalari gazteak trebatzen jarraitzea hurrengo urteari begira, Euskal Ligan ere bai, ahal bada".

Denboraldiaurrea abuztuaren 5ean hasi zen, eta 25era arte 7-8 jokalari besterik ez dituzte izan entrenatzeko, jaien, oporren eta Euskal Ligan jokatuko zutela hain berandu jakitearen ondorioz. Irailaren 8an, baina, lehenengo partida izango dute Hernaniren kontra, eta maiatzera bitarte 34 partidu jokatuko dituzte guztira.

Abuztuaren 26an egin zuten Altzarrate taldearen aurkezpena Euskal Ligan. Partida bakarra izan zen, denboraldiaurreko lehena, eta Laredoko neskak izan zituzten gonbidatu. 1-4 galdu zuten, "emaitza nahiko handia partida izan zenerako", Aspururen hitzetan, eta "ia entrenatu ez arren, gauza onak ikusi ziren, indarra izan genuen bitartean". Aspuruk aitortu du "entrenatzaile gisa oso pozik" geratu zela, "aurrean talde on bat" izan zutelako.

Ekainean hartu zuten Jon Aspuruk eta Aitor Egiak Altzarrateren lehen eta bigarren entrenatzaileak izatearen ardura, hurrenez hurren.

> **Kirol arloan "denboraldi zaila" izango dela uste dute taldeko entrenatzaileek, baina "ilusio eta lan handia" jartzeko prest daudela nabarmendu dute**

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 25ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Edorta

Ezkerraldeko eguzki-sisteman zure txokoa topatu duzun arren, Aiaraldeko konstelazioan zain izango zaitugu asteburuetan. Maite zaitugu!

Lagunak

@

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

		7					5	8
2	9		6			3	4	
6		8	4	5	7			2
3			5	7		2		
5	6			4				
		4				5		
	4				8			
	2	3		9				
	5	6				8	7	

ZAILA

	9			2	7		1	
		6		3		2		
3				6				
			2			5	7	
9	7						4	
8			3		9			2
							6	3
7								8

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Maialen Lujanbioren *RR* ikuskizunerako sarrera bikoitza zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Maialen Lujanbiok Faktorian irailaren 29an eskainiko du *RR* ikuskizuna Faktorian
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Irailak 20, 15:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

HILTZAILEAK

Idazlea/ilustratzailea: Leire Salaberria
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka
Adina: 6 urtetik gora
Ipuin honetan beldurrarekin eta misterioarekin jolasten du idazleak. Haur literaturan ohikoa ez den generoa da. Hala ere bukaeran irribarre batekin bukatuko du. Behin eta berriz irakurtzeko ipuin interesgarria, irakurketa bakoitzean ondorio ezberdinak ateraz.

NI EZ NAIZ ZOMORROA

Egilea: Ane Taberna
Ilustratzailea: Karmele Gorroño (Irrimarra)
Argitaletxea: 1545
Adina: 8 urtetik gora
Goizuetan kokatzen den ipuina da. Bertako ikazkin baten historioa kontatzen digu idazleak- Bertan askotariko ofizooak zeuden asko naturari lotutakoak, baina baita ikazkinak ere. Hauke zagutzeko ipuin bikaina.

ESKULANEN TXOKOA

AZALPENA:
Ikasturte hasiera den honetan, momentu ezin hobea da, haurrekin batera ikasturteko eguregi bat egiteko.

Baina egutegia zertarako? Alde batetik, modu ikusgarrian ikus dezaketelako zer egun den, zenbat falta den astebururako...

Bestetik, egun garrantzitsuak, urtebetetzeak, jai egunak... markatu daitezkeelako.

Gainera, dituzten ardurak ere jarri ditzakegu, gaur eskolaz kanpokoa duzu, gaur amoranera etxera joan behar duzu.

Eta ere lagundu ahal digu muga batzuk jartzeko edo etxeko lan batzuk zehazteko. Adibidez, telebistaren erabilera mugatu daiteke astean bi egunetara eta egutegian jarrita egotea, edo aste honetan erratza pasatzea noren ardura den jarri daiteke.

Haurrentzat zerbait ikusgarria izatea garrantzitsua da eta bergogoratzen die zer den egin dutena eta zer den egin behar dutena.

NOLA EGIN:

- Hilabeteka egitea da egokiena. Haur txikiak badira, inguruan egunaz gain asteko zein egun den eta zein hilabete den jartzea interesgarria da. Baina egokiena da guztiak egotea jarrita eta berak aldatzea.

- Gero, jarri nahi ditugun gauzen emotikonoak sortu, plastifikatu eta belkroa jarri. Adibidez tarta bat urtenbetetzeetarako, autobus bat txangoetarako...

- Ardurak direnak ere aurrekoak bezala jarriko nituzke emotikono bezala plastifikatuak, baina beste kolore batekin. Horrela argi izango dute zer den abisua eta zer den egitekoa.

- Etxeko kide bakoitzak egun bakoitzean gune bat izan dezake eta horrela denak ordezkatuak egongo dira egutegian.

Etxeko gune ikusgarri batean jarri eta etxeko guztiek gozatu dezakezue.

Sormena haurraren hazieran ezinbestekoa da, eskaini diezaiogun denbora, pazientzia eta balibide egokiak.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Eskola eta gero zer?

Urtea urtarrilean hasten omen dela esaten dute. Batzuentzat, batez ere haur eta nerabeentzat, orain da benetako urte hasiera; deskantsurako tarte bat izan ondoren, berriro martxa hartzeko unea heldu baita. Iraila erabi ohi da ikasturtea antolatzeko, ordutegiak egokitzeko, familiako kideen erritmoak aztertzeko.

Udan gertatzen den bezala, ikasturterako ere, eskola orduetatik haratago, eskaintza handia dago haur eta nerabeen ordu libreak betetzeko. Hain da eskaintza handia, ezen galdera ugari etortzen diren idazle honen burura...

Lehenengo galdera da ea zeren arabera erabakitzen den zertan parte hartuko duten haur eta nerabeek. Alde batetik ,ordutegiei erreparatzen zaie, eskola askotan klaseak bukatu eta jarraian egiten dituzte eskolaz kanpokoak, horrek ekartzen du gurasoek lan egiteko (edo beraientzako) tarte luzeagoa dutela eskola orduetara doitu gabe. Beste alde batetik, gure haurra zelakoa nahi dugun izatea pentsatzen hasten gara eta produktibitatean oinarritutako ekintzak aukeratzen ditugu, ingelesa, esaterako.

Benetan erreparatzen diogu haurrak zer nahi edo zer behar duenari? Galdera horrek zalantzak sortzen dizkit. Batez ere ikusita zer nolako ordutegiak izaten dituzten haurrek. Haurrek, eskola orduak gain oso txikitatik arratsaldeak ere beteta izaten dituzte hamaika ekintza bideratuekin. Jolas libreari tarte txikia uzten zaio. Kirola ezinbestekoa dela entzuten da, ingelera ere oso garrantzitsua dela, baina hori bezain garrantzitsua da gurasoekin denbora pasatzea, gurasoekin jolastea, jolas librean aritzea...

Haur txiki batek eta ez hain txiki batek beti behar du jolas librea, bere sormena lantzeko, esperimentatzeko. Horrela ikasten baitu haurrak mundua zer nolakoa den eta hipotesiak sortzen ditu. Jolas librean ibiltzeko denborarik uzten ez badiegu haurrei, ez dira kapazak izango beraien kabuz sortzeko ez eta beraien kabuz gauzak egiteko.

Beraz, utzi dezagun denbora betetzeari eta haurrari erreparatu, zer nahi duen edo non egon daitekeen gustorago, non pasatuko duen ondo inolako helbururik gabe. Jolasa bizitza dela argi esaten dugu, bizitzeko jolasa behar dute haurrek.

Zeeer!!!



Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esaera bat agertuko zaizu. Erabili hizki-marrazkien alfabetoa.



Margotu



SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

Euskarabentura

Xabier Cuadra

JAIOTERRIA
AMURRIO (2008)

BIZILEKUA
PERU

BIDAIAREN XEDEA
LAU URTEREKIN JOAN ZEN PERURA BIZITZERA ETA UDA HONETAN EUSKAL HERRIRA ITZULI DA EUSKARABENTURA EKIMENEAN PARTE HARTZEKO.

“Lagun berriak egin ditut eta ohitura berriak ikusi ditut, Perukoekin alderatuta ezberdinak direnak”

Nola mantendu duzu harremana euskararekin hain urrutitik? Maiz etortzen zara Euskal Herrira?

Batzuetan opor luzeetan etortzen naiz, Perun klaserik ez dudanean. Baina aitarekin beti hitz egin izan dut euskaraz, inoiz ez erdaraz. Berarekin hitz egiteagatik mantentzen dut urtean zehar. Nire anaiarekin ere batzuetan euskaraz aritzen gara, baina bestela, ia ezer ez.

Nolakoa izan da udan honetan Euskarabentura ekimenean parte hartzearen esperientzia?

Oso polita izan da. Jende gehiago eta euskalki ezberdinak ere ezagutu ditut. Ez nituen euskalkiak ezagutzen, euskara batua baino ez nekien. Lagun berriak egin ditut eta ohitura berriak ikusi ditut, Perukoekin alderatuta ezberdinak direnak.

Zein une oroituko duzu betiko?

Uste dut agur esateko momentua oroituko dudala betiko. Azken finean, hilabete pasa dut lagunekin dena egiten: jaten, lo egiten... eta zaila da horren ostean bakoitza bere etxera joan behar izatea. Baina baita ere gogoratuko dut lehenbizikoz hitz egin nuenean haiekin, eta batzuetan ez nituela euskalkiak ulertzen.

Euskarabenturan ezagututako pertsonekin harremana mantenduko duzu?

Bai, sare sozialen bidez mantenduko dugu harremana. Beraz, Euskal Herrira bueltatzen naizenean, ahal dudana egingo dut haiekin elkartzeko, nahiz eta batzuk gertu eta beste batzuk urrun egon.

Zure Peruko lagunek zer esaten dizute?

Ez dute askorik esaten. Perun Euskal Herria ez da oso ezaguna, eta batzuek ez dakite zer den edo non dagoen. Baina ni ezagutarazten saiatzen naiz, Euskal Herria zer den eta nolakoa den kontatzen diet. Baina haiek berez Europa, Frantzia eta Espainia ezagutzen dute gehien bat.

Nolakoa izan da talka kulturala?

Nabaritu dut hemen jendeak egiten duela euskara bultzatzeko ahalegina. Perun ere badago hizkuntza gutxitu bat: kitxua. Baina pixka bat ahaztuta dago, eta ez da asko bultzatzen, jendeak amore eman duela dirudi. Hemen oraindik ere aurrera jarraitzen dute.

Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?

Nik hemen, Euskal Herrian, irudikatzen dut nire burua. Biak ditut gustuko, Perun familia daukat eta hemen ere bai, baina leku bezala Euskal Herria gehiago gustatzen zait, politagoa eta zainduagoa iruditzen zait (...). Unibertsitate ikasketak egitera ere hona etorri nahiko nuke. Beti izan dut hori buruan.

PERU

DESKRIBAPENA
Inka Inperioaren epizentroa izan zen Peru, Espainiak lurraldea konkistatu zuen arte. 1821. urtean aldarrikatu zen herrialdearen independentzia.

AZALERA
1.285.215 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
34 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Gaztelera da gehien hedatuta dagoen hizkuntza, baina badaude baita hainbat hizkuntza indigena ere, horietako asko XIX. mendean desagertu ziren arren. Jatorrizko mintzaira guztietatik, kitxua da gehien erabiltzen dena.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ausolan
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom
araba álava foru aldundia diputación foral
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA